

ADGIA

***“Emakumeek
beste titulu bat
irabazten badute,
gabarra atera
behar da”***

GARAZI MURUA
Athleticeko kapitain ohia

14-18. orrialdeak

#2.900 | 2025/01/12 | 4,00 €



**DBHn azterketei
buelta eman dien
ikastetxea**

24 | HEZKUNTZA



**Balear Uharteetan
haziak berreskuratzeko
lanaz**

36 | AINA SOCIES



**Sukar Horiaren
literatura lehiaketako
irabazlea**

12 | HERRIZOMA'IPUINA

ARGIA EGUTEGIA 2025

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.

Historiografia ofizialak albo batera utzi ohi dituen pertsonekin, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten gertaerak errepasatuko ditugu urteurrenak aitzakia hartuta.

“Oroimen historikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan”

Eduardo Galeano


ARGIA

40€ Euskarria



Egutegia **10€**

45€

Egutegia +
Pago-egurrezko
euskarria

azoka.argia.eus
(+34) **943 37 15 45**



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | XIMUN FUCHS
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | RUBEN SÁNCHEZ
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | JON ALONSO

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: HODEI TORRES / ARGIA CC-BY-SA

GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



24 | DBH AZTERKETETAN OINARRITU GABE, EXISTITZEN DA

Hezkuntza gaiak jarraitzen dituen Mikel Garcia kazetaria Tolosako Laskorain ikastolan izan da. Aurten DBH1 eta 2 mailatan jarri dute ebaluatzeko modu berria: azterketak egiten dituzte prozesuan zehar, ikasleek jakin dezaten zer egiten duten ondo eta zer hobetu behar duten, baina azken kalifikazioa ez da horretan oinarritzen, egiten dituzten beste lanetan baizik.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Nola bihurtu lurzoruak klimaren laguntzaile?

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | GARAZI MURUA

“Gabarra ez da gizonezkoen sinbolo eskusiboa: guztiona da”

Onintza Enbeita

30 | IPIUNA

Herrizoma

Agustín Arteaga

36 | HAZIAK | AINA SOCIES

“Balear Uharteetako irla bakoitzean besteetan ez dagoen landare barietate asko dago”

Garazi Zabaleta

46 | KULTURA | GEROTIK GERORA

Joan Tartas, “Ontsa hiltzeko bidea”

Gorka Bereziartua

48 | KULTURA | HARRY SMITH

AEBetako artea itxuraldatu zuen zinemagilea, folklorista eta magoa

Julen Azpitarte

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene
Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

 Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua:

SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enpreekin batera:


Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno
de Navarra
Nafarroako
Gobernua

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA

 Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara

Ez duzu lapurtuko

Nafarren 2.952 ondasunen jabetza beretzat hartu ditu Eliza Katolikoak. Nafarroako 267 herritan barreiatutako 981 parrokia, tenplu, ermita, eliza, abadia eta basilika; 234 baratze; 195 zelai; 216 zereal-sail; 181 lehorreko soro, 16 labore ureztatu, 187 etxebizitza eta 101 hiri-lursail, besteak beste. Denak batuta, 4.107.000 metro koadro baino gehiago dira; Sadarren moduko 575 futbol-zelairen pare. Katolikoek ipuinaren arabera, Hamar Aginduetan zazpigarrenak dio kristauak ezin dutela lapurtu. Erlijio gehienetan gertatu bezala, ordea, agindu goren horien propaganda egitearen kontura bizi diren —eta nola gainera— arduradunak dira urratzen lehenak. Haien jainkoaren hitza zabaltzea baino, estatus ekonomiko pribilegiatuari eustea bilakatu da lehen manamendua.

📍 Ondarearen Defentsarako Plataformak ikatza eraman du Iruñeko Artzapezpikuaren egoitzara. **UNAI BEROIZ**

 **AXIER LOPEZ**





Euskal selekzioaren ofizialtasuna lortzeko lehen urratsa

 JON TORNER ZABALA

Euskadiko Euskal Pilota Federazioa eskubide osoko kide izatea onartu du Nazioarteko Pilota Federazioak, Iruñean egindako batzarrean. Ofizialtasuna lortzeko bidean urrats handia da, "lorpen historikoa", Euskadiko Federazioak adierazi duenez, baina gogorazi du Madrilek baiezkota eman beharko duela, eta beste federazio batzuek helegiteak jar ditzaketela.

Nazioarteko Federazioak eskubide osoko kide izatea onartuta, Euskadiko Federazioa 2026 eta 2030eko hitzorduetara begira dago. Litekeena baita, bere historian lehenbizikoz, euskal selekzioak 2026an Munduko Pilota Txapelketan parte hartzea –Argentinan jokatu da–, baita 2030ean Bilbon eta Gernika-Lumon egingo den txapelketan ere. Hasiera batean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako pilotariak soilik osatuko lukete euskal selekzioa.

"Lorpen historiko honek euskal pilota selekzioak Nazioarteko Federazioak antolatutako txapelketetan ofizialki lehiatzeko aukera zabalitzen du", dio Euskadiko Federazioak plazaratutako oharrak. Dena den, federazioko presidente Gotzon Enbilek albiste "pozik baina kautelaz" hartu dutela esan du, federazioren batek helegitea jartzea espero dutelako, EITBk jaso duenez.

Espainiako Kirol Kontseilu Nagusiari begira dago orain Euskadiko Euskal Pilota Federazioa, ez dagoelako guztiz argi hark baimena emango duen ala ez. Enbilen ustez, kontseiluak ez du argudiorik erabakia atzera botatzeko: "Nazioarteko Federazioak onartu gaituen momentutik, ulertzen dugu badugula ofizial izateko baimen hori". Hala ere, oraindik "borrokatu" egin beharko dela esan dio EITBri, ikusi beharko delako alegazioak dauden eta zein norabidetan datozen, "guk aurreikusi ez dugun zerbaitekin etor daitezkeelako beharbada".

"Federazioak bazituen orain arte selekzio talde batzuk [joko zuzeneko pilota kirolatan], baina orain, modalitate denetan eta munduko txapelketa guztietan parte hartu ahal izango dugu. Euskal Selektzio bezala jokatu dugu Espainiaren kontra, Frantziaren kontra edo Mexikoren kontra, esaterako", gaineratu du Euskal Federazioko presidentek.

ESPAINIAKO FEDERAZIOAREN HASERREA

Alegazioak aipatuta, bereziki Espainiako Federazioa datorkio jendeari burura. Hain justu, *Berria* egunkariak jakin duenaren arabera, Espainiako ordezkaria denari, Julián García Angulori, ez diote

batzarrera sartzen ere utzi, izatez haren karguaren aldia amaitu egin baita, eta hauteskundeak ez baitira egin. Haren iloba ere saiatu da bilkuran sartzen bozketan parte hartzeko, baina hari ere ez diote utzi, Iñaut Matauko Rada kazetariak azaldu duenez. Bestalde, Kubak ere ezin izan du bozkatu, zorrak dituelako Nazioarteko Federazioan. Espero zen Espainiako eta Kubako ordezkari horiek ezetz bozkatzeta, eta, ezin izan dutenez parte hartu, aurrera ateratu da proposamena. Txilek bakarrik bozkatu du proposamenaren kontra; Costa Rica abstenitu egin da, eta gainontzeko guztiek aldeko botoa eman dute.

Julián García Angulok gertatutakoa "bidegabea" dela esan du bere sare sozialetara igotako mezuan, eta gaia "azken muturreraino" eramango dutela gaineratu.

PRADALES: "BERRI BIKAINA DA"

"Berri bikaina da pilotarentzat, euskal kirolarentzat eta baita euskararentzat ere", idatzi du, berriz, Eusko Jaurlaritzako lehendakari Imanol Pradalesek bere sare sozialetan. "Ofizialtasun hori urrats bat gehiago da gure nazioa aitortzeko. Urrats garrantzitsua da gure Herriaren nazioarteko proiektiorako eta gure hizkuntza eta kulturarentzako espazio berriak konkistatzeko. Izan ere, euskara nazioarteko pilota txapelketetako hizkuntza ofiziala izango da. Eusko Jaurlaritzak euskal kirol federazioei ofizialtasuna lortzen laguntzen jarraituko du".

EH Bai-k eta EH Bildu-k ere baikortasunez jaso dute albiste. Gu ere bai ekimenak, halaber, "balarazio ona" egin du Nazioarteko Federazioaren erabakiaz. "Bide baten emaitza da", adierazi dute taldeko kideek Euskadi Irratian. "Ikusi da kirolariak, gizarte zibila eta arduradun tekniko eta politikoak norabide berean doazenean posible dela. Honek kirolari egiten dio mesede, herriari". Nazioartean lehiatzeko aukera gauzatzekotan, "euskal lurralde guztietako pilotarien parte-hartzea" bermatu beharko litzatekeela nabarmendu du ekimen herritarrak. ●



Euskal selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzeko Durangon egindako ekitaldia, 2022an.

MOTZEAN

Hamabost eraso salaketa jaso dituzte Laudioko fisioterapeutaren kasuari lotuta, eta ehunka izan daitezkeela kalkulatu du Mugimendu Feministak. Dozenaka lagun batu ziren urte bukaeran Laudioko Herriko plazan, "Ez zara fisioa, erasotzailea zara" lelopean.

Sostengua adierazi diote Marieniako lurren aldeko borrokari hogeiki kolektibok. Kanboko Marienia eremuan etxebizitzak eraikitzeko proiektua badu Bouygues Immobilier agentziak. Proiektua ezeztatzeko borroka eramateko determinazioa plazaratu dute.

Urte bukaeran, gutxienez hiru gizonak txinatar jatorriko merkataria bat jipoitu zuten bere dendan, Arrigorriagan. Baionan ere, eraso arrazisten biktima izan ziren bi emakume: bati negar-gasa bota zioten aurpegira bi gizonak, irain arrazistak eginez; haren ahizpa lurrera bota eta kolpeak eman zizkioten.

Donostian 2024ko martxoan jokaturako futbol partiduaren aurretik Ertzaintzak egindako kargetan, Amaya Zabarte zaleaz gain bigarren pertsona bat zauritu zuten, ustez foam pilota batekin begian jota. Orain, kasu hori ere ikertzeko agindu du auzitegiak.

Gontzal Fontaneda euskaltzale eta militante gasteiztarra abenduaren 30ean hil zen. Euskara ikasteko metodo bat asmatu zuen eta euskara irakasle izan zen. Militantzia politikoan ere aritu zen frankismo garaian. Hainbat aldiz atxilotu eta kartzelatu zuten.

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

AROTEGIA EZ! AROTEGUÍA BAI!



Etxearen planetan



ULA IRURETAGOIENA

Gabonetan liburu berri bat utzi dute mesanotxean. Etxearen filosofia eta poztasunari buruzkoa, Emanuele Cocciak berriki idatzia. Coccia, filosofo italiarra, ezaguna egin da landareekin ditugun loturak ezagutarazten planeta osasungarri bat eraikitze bidean, eta esanguratsua da espazio domestikoari dedikatzea hurrengo. Filosofia eta arkitektura zeinen lotuak dauden eta zer fama gutxi duten bien arteko elkarkidetzak arkitekturako ikasketetan, harrigarria. Bestalde, filosofian hiriaren gaineko hausnarketak mardulak dira, baina espazio domestikoa ia esploratu gabe dago. Arkitekturan antzera; hiriaren utopietan iruditeria interesgarri eta zabalak sortu dira, baina etxearenak labur gelditzen dira. Aldi berean, etxearen bidez ezberdintzen dugu gizakia salbatia den gainontzekotik.

Filosofoak dio modernitatearen iraultza morala izan dela gure poztasuna egiten dugunarekin eta maite dugunarekin erlazionatzea; lana hirian gauzatzen da eta maitasuna etxean. Eta dio, begirada garaikidean Lurraren habitatean jarri behar dugula foko morala, espazio domestikoaren jarraipen gisa. Etxearen artefaktua, baina, ez da gai espaziala-arkitektonikoa soilik; munduaren txoko intimoenaren eraikuntzan gauzak, animaliak, pertsonak, landareak, atmosferak, ekintzak, iruditeriak, oroimenak daude. Etxearen orden materialean objektuak eta pertsonak modu afektiboan nahasten dira. Identitatearen eraikuntzarekin lotura estua du etxeak, baina individualtasun horrek ez omen gaitu besteengandik banatzen, kontrara, gure bizitza bestekin batera korapilatua dagoela erakusten digun teknika material eta psikikoa da. Etxean kontzentratuak diren gauzak zentzu kosmikoa biltzen dute bere materia energetikoan. Eta pentsamendupuntu honetan argudioa arkitekturaren ulermen euklidianoetik aldentzen denez, etxeari gainjartzen zaizkion ukigarriak ez diren zereginak onartuta ere, sentsibiltate baliabideak faltan ditugu etxeetatik planetaren osasunean eragiteko... ●



EUSKAL HERRIKO ETXEBIZITZA SINDIKATUEN SAREA

2025ean etxebizitza zer?

URKO APAOLAZA AVILA

Urte berria hasi dugu, baina etxebizitza arazo oso potoloa bihurtu zaigula aspaldi honetan, hori ez da berria. Hala ere, azkenaldian zabaldu diren datuak ikusita, 2025a mugarri bat markatzekotan dela esan daiteke, eta iragar ezinak diren ondorio sozial eta politikoak antzeman daitezke ortzi-muga hurbilean.

Prezioen gorakada izan dugu urtea estreintzeko albiste nagusietako bat. Adibide bat ematearren, Tinsa tasazio erakundearen arabera Gipuzkoan etxebizitzaren metro koadroa 2.564 eurotan dago, aurreko urtean baino %4 gehiago, eta batez besteko hipoteka, berriz, 804 eurokoa da. Alokairuek ere gorantz egin dute, eta Unai Fernández de Betoñok *Naiz.eus*-en nabarmendu duen bezala, azken zazpi urteetan alokairuak %26 igo diren bitartean, soldatak apenas igo dira %16: "Hau da, duela zazpi urte baino %10 pobreagoak dira maizterrak". Ez da harrizkeoa etxebizitza kezka iturri nagusia izatea herritar askorentzat. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren %41entzat esaterako hala da, Deustobarometroaren neguko inkestaren arabera -iazko portzentajearen hirukoitza-.

Baina gazteak dira igoera hori modu dramatikoenean jasaten dutenak. Gazteen Euskal Behatokiak emantzipazioaz egindako azken txostenak dio 18 eta 34 urte artekoek euren soldataren %64 hipoteka ordaintzera bideratu behar dutela, eta alokairuan daudenek ere soldataren %49,5 erabiltzen dute lo toki bat izateko. Hori gazteek bizi duten lan-prekarietatearen erakusgarri ere bada, *Gedar* kazetari dienez: lautik hiruk 1.500 eurotik beherako soldata jasotzen dute.

Horrelako egoera baten aurrean, alferrik da gazteei "pazientzia eta konfiantza" eskatzea, Imanol Pradales EAEko lehendakariak urte amaierako diskurtsoan egin bezala. Are gutxiago Lurzoruaren Lege berri bat egosten ari direnean, etxebizitza gehiago egiteko eta gutxi batzuk adreiluaren negozioarekin aberasten segitzeko. Izan ere, "arazoa ez da eskaintza falta, etxebizitzarako sarbide falta baizik", etxebizitza sindikatueta Karla Pisanorekin eta Ane Salvadorrekin AR-GIAn Leire Ibarrek egindako elkarrizketan irakurri dugun moduan.

Horren aurrean, mobilizatzea eta alternatibak lantzea dira herritarrei geratzen zaizkien aukera bakarrak. Aurreko higiezin burbuilarekin ikusi genuen antzeko zerbait: 2006an plazak hartu zituzten gazte ugari etxebizitza duinaren alde, M15 mugimenduaren ernamuina izan zena. Erakundeek benetako etxebizitza politika publiko bat egin beharko dute etxea behera erortzerik nahi ez badute, zeinek bultzatzea ez baita faltako. ●

24

urteko espetxe-zigorra bete ostean libre geratu da Guillermo Merino durangarra. Merino 2001. urtean atxilotu zuten, eta dispertsioa jasan du, zigorraren zati handi bat Euskal Herritik kanpoko kartzelatan igaro baitzuen baldintza "zailetan".

18

urteko espetxe-zigorra eskatu du akusazioak Mario Lopez Gernikako entrenatzaile ohiarentzat, fiskaltzak baino 4 urte gehiago. Sexu erasoak 1998an hasi ziren, biktimak 13 urte zituenean.

%23,9_k

osasun aseguruak zeukan kontratatuta 2023an EAEko herritarren artean, Eustaten arabera. 2021eko datuekin alderatuta, %4,1 gehiagok. Batez ere traumatologia, oftalmologia, ginekologia eta dermatologia kontsultak egin ziren.

"Gizonok matxismoaren aurrean ardurak hartzeko unea iritsi da"

ERAIKIZ KOLEKTIBOA

Ander Magallon, Mikel Irure eta Xabier Jauregi maskulinitate berrien inguruan mintzatu dira irratian.

EUSKALERRIA IRRATIA
(2024-12-30)



"DONOSTIARRON GEHIENGOARI ONDORIO LAZGARRIAK EKARRIKO DIZKIGU MUNDUKO FUTBOL KOPA ERAKARRI IZANAK"

BIZILAGUNEKIN PLATAFORMA

2030eko munduko futbol txapelketaren egoitzetako bat izango da Donostia.

2024-12-30

"Haur eskoletan euskarazko eskaria eta eskaintza parekatzeko negoziazio bidean gaude PSNrekin"

JOSEBA ASIRON

Iruñeko alkatea

EUSKALERRIA IRRATIA (2024-12-27)



2025ak dakarrena?



DIANA FRANCO EGUREN

2025erako teknologia aurreikuspenen azterketa arina egin dut. Urtero bezala, medioetan 2025ean teknologiak ekarriko duenaz hitz egiterakoan diskurtsoa oso antzekoa da. Teknologiaz idazten dugun askok badugu etorriko denarekiko gehiago jakiteko larritasuna, berria aurreratzeko beharra, botere eta arrakasta aukerak non egongo ote diren aurreikusteko grina... Baina, loroak bezala, denok ari gara berdinaz hitz egiten: adimen artifizialak, sare sozialentzako lanean, gobernuetan eragiteko erakutsi duen gaitasuna; Trumpen Gobernuaren baitan Elon Musk-ek ekarriko duen gobernu ereduak herritarrengan izango dituen eraginak; Google-n Willow txip kuantikoak suposatuko duena...

Aldiz, mundu teknologikoari lotutako berritiko titularrei begiratu beharrean, mundu horretatik kanpo egiten ari denari begiratzea da 2025erako gomendatzen dizuedana. Aniztasun teknologikoaren ideia lantzen ari direnek egiten dutenari; bizitza erdigunean jartzeko bidean dugun teknologiak jokatzen dutenari. Aurreko zerrendan ez bezala, bide honetan izen propio askorik ez da: talde, komunitate, gizarte eragile, sare eta elkarteek ehundutako azpiegitura eta harremanez ari gara. Bizitzari eta bizi dugun planetari teknologiarekin sortu diezaiotzekun kaltea ahalik eta txikiena izateko hausnarketa gelditzen ez dutenak, eskubide digitalak babesteko bidean borrokatzen direnak, tokiko azpiegiturak sortuz herritarrek babesten eta ahalduz dituztenak, indarkeria eremu digitalean borrokatzen dutenak (pertsonek artekoa, korporazioek eragindakoa eta erakunde publiko eta gobernuetatik datorrena), software librearen alternatiba modu etikoan pertsonen gerturatzeko dietenak, arrakala digital berriak sortzen ez dituztenak, dauden arrakala digitalak borrokatzen dituztenak, zaurgarritasun eta bazterkeria digitala borrokatzen dutenak...

Eremu digitalean inoiz baino argiago ikusten da gizartea antolatzen ari dela, beraz, 2025ean eredu hauei jar diezaiotzekun arreta, bizitza onak izateko bidean berrikuntza interesgarrienak ekarriko dituztenak baitira, eremu digitalean. ●



Al-Jazeeraren Zisjordaniako egoitza itxi du Palestinako Aginte Nazionalak

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Urtarrilaren 1ean jakin da Qatarko telebista kateak Zisjordanian duen egoitzaren itxeko eta kazetarien lana izozteko erabakia. Qatarko telebistak "sedi-zioa bultzatzen duelako" eman du adierazpen askatasunaren kontra doan urratsa Palestinako Autoritateak. Bere irudiko, "gatazka elikatzeko duten material eta txostenak" zabaltzen dituen komunikabidea da.

Palestinako Barne, Kultura eta Komunikazio ministerioek osatutako batzordeak hartu du erabakia. Jeningo errefuxiatu kanpamentuan Palestinako segurtasun indarren eta bertako erresistentzia taldeen artean izandako liskarren berri eman ondoren etorri da zentsura.

"Lurralde okupatuetan bideratzen diren gertakarien berri ematea deuseztatzeko saiakera soiltzat daukagu Zisjordaniako Al-Jazeeraren aktibitateak eta kazetaritza-lanak izozteko erabakia". Horrela erantzun dio Al-Jazeerak Palestinako Aginte Nazionalari. Palestinako Aginte Nazionala Israelgo Gobernuarekin lerrokatu izana deitoratu du komunikabideak. Dena dela, "egia gordetzeko saiakeri" aurre egin eta "mehatxuen eta intimidazioen gainetik pasaz" kazetaritza bideratzen segituko dutela adierazi dute Al-Jazeerako kazeta-

riek. Israelen ere dute debekaturik Al-Jazeera, maiatzaz geroztik.


Zisjordania okupatuan bideratu gehiegikeri eta indarkeria kasuak plazaratzeaz gain, Gazakoen berri ere ematen ari da Al-Jazeera, bertan kazetariak dituen hedabide bakantekoa delako. 2023ko urriaren 7az geroztik Al-Jazeerako bost kazetari hil ditu Israelek Gazan -guztira 145 kazetari ditu hil-. Telebistaren egoitza itxeko urratsa "legez kanpokoztat" eta justifikatu gabekotzat" jo du Hamas erakundeak ere.

GAZAKO BIZTANLERIA %6 APALDU DA

Palestinako Estatistika Bulegoak plazaratu datu kezkarriarekin etorri zaigu 2025 urtea: 160.000 palestinar gutiago ditu Gaza lurraldeak. 55.000 hil ditu Israelek, eta beste 100.000 inguru erbesteratu dira 2023ko urriaren 7az geroztik. Ofizialki 45.000 dira hilda, eta beste 11.000 desagerturik. Hori horrela, Gazako biztanleria %6az apaldu da 2023ko urriaren 7az geroztik.

2,1 milioi palestinar dira bertan bizi, eta horietan %47ak 18 urte baino gutiago ditu. Sortzekoak diren 60.000 umeen geroa ere da zalantzaz, bertako ospitaleak suntsiturik dituelako Israelek. ●

Prezioek gora egin dute urte berriarekin batera



LEIRE IBAR



JANARIA

Hego Euskal Herriaren kasuan, elikagaien sektoreari dagokionean, 2025ean bertan behera gelditu da krisi ekonomikoak eragindako BEZ murrizketa. Hau da, %2tik %4ra igo da tasa, eta elikagai askoren garestitzea ekarri du horrek. Oliba-olioa, ogia, esnea, arrautzak, gazta, frutak eta barazkiak, besteak beste. Horrez gain, pastaren eta olioaren BEZa %7,5etik %10era igo da, ohiko zergetara itzulita.



ETXEA

Etxebizitzaren prezioek igotzen jarraituko dute. Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren batez besteko prezioa 2.400 eurokoa izango da metro koadroan, eta Gipuzkoa izango da lurralde garestiena. Hala ere, hipotekek beheranzko joera izango dute, Euribor-tasa jaisteko joerak jarraituko duelako. Hori dela eta, familia askok arnagune bat izango dute hipotekak ordaintzeko. Kontrara, alokairuen prezioek aurtan ere gora egingo dutela aurreikusten da.



ELEKTRIZITATEA

Energiaren sektorean ere, aurreko urteetako zerga murriztuek amaiera izan dute urtarrilaren 1ean. Elektrizitatearen zerga %21era itzuli da, eta horrek nabarmen eragingo die etxeetako aurrekontuei. Gas naturalaren prezioek ere igoera izan dute: norbanakoentzako tarifa %10 igo da, eta tarifa komunitarioa duten bizilagunentzako prezioak %13,5 eta %18,3 artean goratu dira, Espainiako Estatuko Aldizkari Ofizialean 2024ko abenduaren 31n argitaratu zuten ebazpenaren arabera.



ZABORRA

Udal-zergetan igoera handiak ekarri dizkigu 2025ak. Gasteizen, hondakinen bilketa tasa %100 igo da, Donostian %26,5, Bilbon %5 inguru eta Iruñean %4ko igoera espero da. Europar Batasunaren eta Espainiako Gobernuaren araudien ondorioz garestitu dira tasak, batez ere hondakinen bilketa zerbitzuei dagokienean.

NOLA BIHURTU LURZORUAK KLIMAREN LAGUNTZAILE?

Muturreko lehorte eta euriteak normaltasun berria bilakatu zaizkigu. Areagotzen dituzten kalte ekonomiko eta ekosistemikoen artean, laborantzak pairaturikoak ez dira txikiak. Bereziki, lehorte garaietan zaluegi idortzen diren edota eurite handietan ur guzia xurgatu ezin duten lurzoruak dira arazoaren parte. Nola bihurtu konponbidearen parte?

 NICOLAS GOÑI

Aspaldidanik diote klimatologoek klima aldaketak uraren zikloa kaotikoagoa bilakatuko duela, orain horren froga eta neurketak aurki ditzakegu *Nature* aldizkarian argitaraturiko *Changing intensity of hydroclimatic extreme events revealed by GRACE and GRACE-FO* (GRACE sateliteek erakutsitako muturreko gertakari hidroklimatikoen intentsitatearen aldaketa) artikuluan. Euskal Herrian, satelite daturik begiratu gabe, joeraz ohartu gara azkenaldian: bi urteko tartean pasa gara mendietan "betikoak" ziren hainbat iturri agortzetik (2022an), zuhaitzak inoiz bezala handitu eta baratzetan patata ustelak biltzera (2024an). Laborariei horrelako kontrastei egokitzea bereziki zaila zaie, batez ere lurzoruak ez badira aski sakonki egituratuak.

Ura xurgatzeko gai ez diren lurzoruetan eurite bortitzek egin dezaketenaren muturreko adibidea da urri bukaeran Valentziako hirigunean gertaturikoak. Gertaera horren zergatiak anizkoitzak dira, horietarik garrantzitsu bat da lurzoruen gehiegizko artifizializazioa, ARGIAren 2893. zenbakiko *Valentziakotik ikasi behar duguna: eman arnasa lurra-ri* erreportajearen erakutsi bezala. Bertze zergati bat klima aldaketa dugu, noski: itsaso beroagoak atmosfera beroagoan ur gehiago lurruntzen du, eta eurite bor-

titzagoak gertatzen dira. Eta bertze bat da ekosistema lurtarren osasuna –edo osasun-eza– eta tokiko ur-zikloaren parte izateko duten gaitasuna –edo gaitasun-eza–, ARGIAren 2887. zenbakian *Eta klimaren konponbidea baso eta paduretan ere balego?* artikuluan azaldu bezala, Millán Millán atmosfera fisikariaren lanaren ildotik.

BASO ETA PADURAK BAI, SOROAK ERE BAI

Hezetasunaren aldakortasun horri aurre egiteko faktore gako bat da lurzoruen porositatea, hau da, ura xurgatzeko duten ahalmena. Oihan eta padurena ez bezala, soroetako porositatea gehienbat gure menpekoa da, eta bi modutara emenda daiteke: biologikoki edo mekanikoki. Maiz goldatzen diren soroetan porositate biologikoa desegiten da, baina goldatuta eta harrotuta porositate mekanikoaz ordezkutzen dugu. Porositate mekanikoak berehalako eragina du, lur harrotu berrian errazagoa baita ongarrria nahastea, ereitea eta landareak aldatzea. Aldiz porositate hori ez da iraunkorra, eta guztinez urtero berriz goldatu eta harrotu behar da. Zizareek beren habitataren urteroko suntsitze hori gaitzesten dute, eta zoritxarrez ez dute gaitzespen hori hedabideetara helarazteko ahalmenik, ezta lur azalean bizi diren hankabikoei

ulertarazteko modurik ere. Nahiago luke- te nekez eraiki duten lurpeko hoditerian bakean beren joan-etorriak egiten utziko bagenitu, eta izatekotan jatera emanen bagenie, adibidez, azalean orbela edota egur xehatua barreiatuta, eta sustrai biomasa handia garatzen duten landareak ereinda –horretan lan ona egiten dute oloak, zekaleak, garagarak edota sorgoak, bertzeak bertze–. Goldatzearen bertze albo kalte bat da geruza sakon- tan lurra trinkotzen duela –traktoreen pisuaz–, horrek sustraiaren garapena eta uraren xurgatzea oztopatzen dituelarik. Beraz, euririk egiten ez duenean, maiz goldaturiko lurzoruak zaluago urik gabe gelditzen dira –batez ere materia organiko gutiegi eduki badute–, eta eurite handien pean aldiz, ur guzia xurgatu ezinik, azalaren parte bat galdu dezakete lokatza isuririk, edo lokatza bertan egonez gero lur azala airerik gabe utzirik, zizareak ihes egitera behartuta. Argi da lur horiek datozen muturreko eguraldiei aurre egiteko ez direla ongi hornituak.

Kontua da, porositate mekanikoak ez bezala, porositate biologikoak denbora behar duela garatzeko –batez ere oso desegituratua den lurzoru batetik abiatzen bada–, eta garatu bitarteko bidean eragozpenak topatzen direla, hala nola nahigabeko belarrak, bareak, edota lehen hilabeteetan nitrogeno eskasa. Trantsizio



WIKIMEDIA

ZIZAREEN GARRANTZIA

Lumbricus terrestris espezieko ale bat, lurrera berriz jaisten. Zizareak hodeigintzako langile ekinak dira, baldin eta bizitzen uzten baditugu.

denbora hori aldakorra da lur mota, tokiko klima eta soro bakoitzaren historiaren arabera, baina hemezortzi hilabete eta lau urteren artekoa izan ohi da, baratzegintzan azken bi hamarkadetan teknika horiek garatu dituen François Mulet laborari-ikerlariaren arabera. Beraz, norbere lurretik epe laburrean etekina atera behar duenarentzat, zizare kuadrilla handitzearen truke, goldea estalpean uztea ez da erabaki erraza –epe luzeko hainbat onura dituen arren–.

LEHORTE ETA EURITEAK PAIRATU BEHARREAN, HODEIAK SORTU

Lurzoru egituratueta biomasa lurlean sakonago zabaltzen da, bere baitan dituela sustrai bizidunak eta horiekin sinbiosian bizi diren bakteriak, sustrai hilak eta horiek jaten dituzten onddoak, aktinomizetoak, egitura honen eraikuntzan

eta mantentzean gakoak diren zizareak, eta bertze hainbat izaki. Lurrean sakonago zabaltzen den biomasa konplexu horrek atmosferarekin ere badu zerikusia: porositate biologiko sakonari esker, eurite handiak xurgatzeko ahalmen handiagoa da. Porositate horri esker ere, lehorte garaietan geruza sakonetako ura eskuragarria da eta zerutik heldu ez dena konpentsatzen laguntzen du. Sustraien garatzeko ahalmena hobetuta, finean, landare biomasa handiagoa badago, eta biomasa horrek ur gehiago lurruntzen du, hortik hodeien garapena eta tokiko ur-zikloa elikaturik. Lehorteez gain, tokiko ur zikloek saihesten dute lurruna geruza altuagoetan metatzea eta hortik Valentzian, adibidez, ikusitako ekaitz erraldoien garapena, Millán Millánek azaldu bezala, geruza horietan direlako horrelakoak garatzen.

Tokiko mailaz haratago, behe hodeiak birsortzeak garrantzi berezia du gaur egun, desagertzen joan baitira azken urteotan. Duela guti *Science* aldizkariko *Recent global temperature surge intensified by record-low planetary albedo* (Berriki gertatu tenperatura igoera areagotu du inoizko albedo apalenak) artikuluaen arabera, hori izan daiteke 2023an neurturiko tenperaturen zergatia –sufrezko aerosol isurketen murrizteaz gain–. Behe hodeiak oso garrantzitsuak zaizkigu, euriak ekartzeaz gain, eguzki izpien zati bat espaziora islatzen dutelako –horrela, behe atmosferako beroketa murrizturik–. Desagertuko balira, beroketa azkartuko litzateke, itzulerarik gabeko mailak gainditzeko arriskuarekin. Zizareak ederki biziko lirateke hankabiko goldatzailerik gabe. Gu, aldiz, haiek gabe ezin: gure elikadura-ekoizpenerako ez ezik, hodeigintzan ere ari baitira lanean. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Garazi Murua

TALDEKO KAPITAINA



GABARRA EZ DA GIZONEZKOEN SINBOLO ESCLUSIBOA: GUZTIONA DA



2002an ikusi zituen lehenengoz hamaika emakume kamiseta zuri-gorriarekin San Mamesen. Bere ametsa egia bihurtzeko aukerak errealak zirela ulertu zuen Garazi Muruak.

Athleticeko nesken taldeko kapitaina izatera iritsi zen, baina lesio batek behar baino lehen ekarri dio erretiroa.

 ONINTZA ENBEITA  HODEI TORRES / ARGIA CC BY-SA

29 urterekin erretiratu zara futboletik. Goiz samar akaso?

Gaztea naiz, eta oraindik futbola daramat botetan, baina azken urteak zailak izan dira. Bizkarreko lesio gogor bat izan dut, eta gaintituta gero ez dut zelaian parte hartzeko aukerarik izan. Denbora asko egin behar izan dut gelditu, eta hala-koetan beste batzuek hartzen dute norbere lekua. Gazteak oso maila onean ari dira, eta pentsatzen hasi nintzen ikasketak amaitzeaz nituela, eta agian, hauxe zela beste erronka batzuei heltzeko nire momentua. Besterik gabe.

Bizkarreko lesioaren eraginez, minez jokatu zenuen bolada luze batez. Nola gogoratzen dituzu azken urteak?

2020an hasi nintzen lesioarekin. Hilabe-

te pare bat egin nituen gelditu, eta berriro jokatzen hasi nintzen. Kontua da, jokatzen hasi arren, harrezkero, bizkarreko minez bizi izan nintzela 2023an ebakuntza egin nuen arte. Lehian sartuta zaude-nean ez duzu geratu nahi, baina 2022ko irailean mina jasanezina izatera iritsi zen eta geratzea erabaki nuen. Beldurra nuen, ez bainekien zein prozesu jarraitu beharko nuen, eta mina nire bizitza baldintzatzen ari zen: herren egiten nuen, postura bakarrean lo egin nezakeen, zutik ezin nuen luzaro iraun, baina eserita ere ez... hernia diskal bi nituen bizkarhezurrean eta gaur egun halakoak ebakuntzarik gabe pasatzen direla esan zidaten. Pentsatzen nuen tratamendu kontserbadore batekin konponduko zidatela arazo eta hilabete batzuetan jokoan izango nintzela. Sintomak gutxitzeko balio izan

zidan tratamenduak, baina lehen mailako futbolera itzultzeko derrigor egin behar izan zidaten ebakuntza.

2023ko urtarrilean erabaki genuen kirofanotik pasatzea eta erabakirik onena izan zen. Oso ondo errekuperatu nintzen eta taldera itzuli nintzen, baina ordurako, urte bi neramatzen gelditu. Lortu nuen taldearen eritimoan entrenatzea, baina partidetan ezin izan nuen parte hartu. Urte bi asko dira partida ofizialetatik kanpo, eta min fisikoa gaintitu arren, min emozionala nuen. Horrek gogorragoa egin zidan esperientzia.

Mina desagertu da, baina futbola ere bai. Nolako da orain Garaziren bizitza?

Kirola egiten jarraitzen dut. Plakaketa gabeko errugbia probatu dut, adibidez.



Garazi Murua

ALGORTA, 1995



Futbol profesionaletik erretiratuta, ez dauka milioi bat euro balio duen autorik garajejan. Lasai jubilatuta da: "Besterik gabe". Lesio baten ondorioz jokatzeari utzi, ikasketak borobiltzeko astia hartuta, lantegi bat utzi eta bestera doanaren pausaz egin du aldaketa. Taldeak egin zuen kapitain. Abokatutzako masterra amaitu eta abokatu izateko bidean, ez daki ze talde aurkituko duen lanerako, baina bere lan egiteko modua taldekoa da orain ere.

Futbolearen jokatzeko dut abokatuen elkar-goko taldearekin ostiraletan, eta kirolaz beste leku batetik gozatzen ari naiz: ondo pasatzen dut, jendea ezagutzen ari naiz, harreman berriak egiteko balio dit... Euskadi Irratian ere ari naiz futbol partidak komentatzen, eta gustura. Politika da jokatu ezin dituzun partida horien berri ematea. Hori bai, ahal dudanero joaten naiz Lezamara: oraindik ere, nire taldea nire taldea da.

Abokatuen elkargoko taldean ari zara futbolearen; izan ere, ikasketaz abokatu eta ekonomialaria zara. Ez zara futbolearen bakarrik ibili urte hauetan.

Beste emakume askoren moduan, futbolearen ibili naizen urteetan, ikasten ere aritu naiz. Lehen mailan ari zarenean ez da erraza, baina ikasketei zeure eritmoa ezarrita, bateragarriak dira futbolarekin.

Zentzu horretan, oso erreferente ezberdinak sortzen dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean, ezta?

Ezinbestean. Gure arteko distantziak handiak dira. Gizonezkoen lehen mailako futbolearen dauden kontratuak, bai kirolean bai publizitatean, ezin dira gurekin alderatu. Beste dimentsio batean daude. Gu ere profesionalak gara -hara, oraindik lehen pertsona hitz egiten dut!-, baina askoz ere maila apalagoan. Gure aurrezteko gaitasunak ez dauka haienarekin zerikusirik, eta argi dugu kirol ibilbidea amaitzen dugunean beste zozertan lan egin beharko dugula. Orduan, gure ibilbide profesionala garatzearekin batera, gerorako trantsizio hori ere prestatzen dugu.

Lehen pertsona hitz egiten duzu, bai. Kapitaina izan zara urte askotan. Zeure sentitzen duzu taldea?

Ohore eta erantzukizun hori izan dut. Nire kirol ibilbidea goxotasun eta maitasun handiz gogoratuko dut beti.

Mutilen eta nesken kasuan, Athleticen behintzat, ez dira berdin aukeratzen kapitainak.

Gizonezkoen taldean beteranotasunaren arabera izendatzen dira kapitainak, baina emakumezkoen kasuan aldagelak aukeratzen du bozketa bidez. Nik talde-

kideek kapitain izendatu izanaren ohera izan dut. Ederra da zure taldekideek zu aukeratzea haien kapitaina izateko.

Konfiantza eta errespetua erakusten ditu horrek, edo?

Bai, eta azken finean, kirol ibilbidetik gorde dezakezun gauzarik politenetakoa da hori: zure taldekideen maitasuna eta errespetua.



Gizonezkoen taldean beteranotasunaren arabera izendatzen dira kapitainak, baina emakumezkoen kasuan aldagelak aukeratzen du bozketa bidez"

Getxoetarra zara izatez, eta Athleticen jokatu dituzun urte gehienak. Zu futbolearen hasi, ordea, Ameriketako Estatu Batuetan hasi zinen.

Nik beti jokatu izan dut futbolearen, baina umetan, eskolako taldean sartu nahi izan nuen, ezin izan nuen pauso hori eman. Orduan, gurasoen lan kontuek Nevada eraman gintuzten 10 bat urterekin, eta han hasi nintzen talde misto batean jokatzeko. Bueltan Bizkerren hasi nintzen, herriko taldean. Hasi-eran mutilekin batera jokatu nuen, baina DBHrako salto horretan, legeak esaten zuen haurren kategoriatik aurrera ezin zela talde mistorik egon. Orduan, Bizkerreko nesken taldean jarraitu nuen Athleticen fixtatu ninduen arte.

Zure agurreko bideoan ere, presente egon da Bizkerre.

Urte politikak eman nituen han. Umeak ginen, eta egunen batean lehen mailan jokatzeko ametsa geneukan, Athleticen kamiseta jantzi nahi genuen... intentsitatez bizi nuen futbola orduan. Gainera, Bizkerrek beti egin du apustua emakumeen futbolaren alde. Algortarra izanda, eta bestela ere bai, oso harro eta pozik nago Bizkerreko harrobitik etortzeaz.

Bideo horretan bertan esaten duzu, botak ez direla eskegitzen, oinordetzan ematen direla eta beste neska bati eman dizkiozula.

Gu umeak ginenean gure erreferente gehienak, denak ez esatearren, gizonezkoak ziren. Hori zen telebistak erakusten zigun futbola. Niretzat inflexio puntua izan zen 2002a. Athleticen nesken lehen taldeak liga irabazi zuen eta azken partidara San Mamesen jokatu zuten. Hor ikusi nuen nik aurrenekoz emakume talde bat San Mamesen, kamiseta zuri-gorria jantzita. Hor konturatu nintzen nik ere egin



nezakeela amets horrekin. Badakit amets egiteaz gain lan egin behar dela, zortea izan behar dela... baina amesteko aukera gutxienez eman zidan partida hark. Beraz, gure kirol ibilbideko gauza ederrenetakoa bat izan da, emakumezkoen futbolaren garapenean gure ekarpena egin ahal izatea eta orain futbolean hasten diren nesken (edo mutilen) erreferenteak izan ahal izatea.

1995ekoa zara zu, eta 2002an sortuzen Athleticeko nesken taldea. Zertan garatu da onerako emakumeen futbola eta zer utzi duzu lortzeke?

Ni lehen taldera iritsi nintzenerako, bidea nahikoa eginda zegoen. Gure aurrekoek zelairik txarrenetan jokatzen zuten, ordutegirik txarrenetan. Baliabide eskasekin eta inolako aitortzarik gabe egin zuten bidea. Ni taldera iritsi nintzenean, bazeuden lanaldi partzialeko kontratu batzuk, adibidez. Gauzek hobetzen jarraitu dute: lanaldi osoko kontratuak daude, hitzarmen kolektiboak sinatu dira... gehiago egin behar dugu, hala ere. Oraindik ere emakumeon profesionaltasun maila apala da eta komunikabideek emakumezkoen kirolari ematen dioten trataera ere aldatu egin beharko litzateke. Baliabideen aldetik, ostera, belar artifizialeko zelaiak kendu behar dira, eta emakumezkoen futbola estadio handietara eramán. Ez da bakarrik agertoki hobia izategatik: estadioak beti daude

hirien erdian eta entrenamendu zelaiak periferian. Zaleei erraztu egin behar zaie emakumezkoen kirolera iristeko modua. Gustatuko litzaidake, gainera, etorkizun ez oso urrun batean gizonak eta emakumeek elkarrekin negoziatzea hitzarmen kolektiboa.

Emakumeei soldatak igotzea bezain justiziazkoa litzateke gizonen futbolarientak jaistea?

Ez dakit horrek ze bilakaera izango duen, baina gutxieneko baldintzek berdinak izan behar lukete. Aukera berdintasun kontua da; horrek belaunaldi berrietan futbolari profesionalak izateko aukera gehiago sortuko litzuzke.

Emakumeek ere estadio handietan jokatu behar dutela diozu. Gogoan daukazu San Mamesen jokatu zenuen lehen aldia?

San Mamesen jokatu nuen lehen aldia ederra izan zen: Txapeldunen Ligako partida bat zen eta irabazi egin genuen. Hala ere, bereziki gogoratzen dudana eguna Erreginaren Kopako kanporaketa hura da: Athletic Madridentz kontratuak genduen eta 46.000 lagun etorri ziren San Mamesera. Negar egiteko gogoarekin ateratu nintzen zelaira. Hasierako hamakakoan jokatu nuen eta izugarria izan zen aldagelako eskailerak igo, eta San Mames beteta ikustea. 46.000 lagun gu babesten eta hauspotzen. Partida hartara iritertera-

koan sentitu nuena oso gutxitan sentitu dut.

Desberdintasun handia dago Lezaman jokatzetik San Mamesen jokatzera?

Bai, eta dena ez da beti onerako. Gerta daiteke estadio handian urduriegi jartzea ere. Dena den, halako momentua bizitzea merezi dugu emakumeok ere, eta nik nahi nuke ikusi emakumezkoen futbola hamabostero San Mamesen.

Aurten gizonen lehen mailako taldeak Errege Kopa ekarri du Bilbora. Ospakizunetan irauli da Bizkaia osoa. 2016an irabazi zenuen emakumeok azken liga. Gabarraren hutsuneak hor jarraitzen du zuen kasuan.

Izan ez diren gabarrak ez dira bueltatuko, baina emakumeen taldeak beste titulu bat irabazten duenean, gabarra ateratu egin behar da. Ez da gizonen sinbolo eskusiboa: guztiona da.

Aurtengo ospakizuna kritikatu izan da. Zeuk zelán bizi izan zenuen?

Berez, egun ederra izan zen, baina bai 2016an irabazi genuen hartan, zein emakumeek aurretik irabazitako lau liga haieran ez zen aitortzarik izan. Horrek eta horren inguruko aipamenik ezak gizonen ospakizuna gazi-goza egiten du. Etorkizunean, emakumeen garaipenak ospatzeko ere aterako da gabarra

eta gizarteak erantzun egingo duela uste dut. Berdintasunaren diskurtsoarentzat inportantea da alde sinbolikoa lantzea eta belaunaldi berriek ulertu behar dute gabarra guztiona dela.

Zuretzat zer izan da Athletic?

Athletici esker nire umetako ametsa eta nire pasioa etxean gozatu ahal izan ditut, familiak eta lagunak babestuta. Oso eskertuta nago.

Irratian ari zara orain partidak komentatzen. Ikusten duzu zure burua harrobian lanean edo entrenatzaile?

Abokatutzako masterra amaitzen ari naiz, eta irratia futbolari lotuta egoteko eskaintzen didan aukera gozatzen saiatzen naiz. Hala ere, kostatzen zait hemendik sei hilabetera non egongo naizen irudikatzea. Futbolari lotuta bai agian, baina entrenatzaile ez.

Entrenatzaile ez?

Entrenatzailea izateak lan handia eskatzen du. Egungo futbola datuekin lotuta dago: bideoak ikusi behar dituzu, giza talde bat kudeatzea da zure ardura, emaitzak onak izan behar dira... gauzak ondo doazenean munduko onena zara, bestela kalera. Ogibide zaila eta bakartia da.

Jendeak normalean futbol taldeez hitz egiten du, baina badago federazio bat ere. Espainiako nesken selekzioan azken Munduko Kopa irabazi ondoren zenbait gauza oso agerian geratu ziren.

Azken urteetan selekzioarekin lotuta egon diren berriak tamalgarriak eta lotsagarriak izan dira. Denon esperantza zen nazioarteko titulu bat irabazteak bultzada handia emango ziola emakumezkoen futbolari, baina begira zer ger-

tatu zen. Gauzak astiro ari dira hobetzen eta hori borondate faltaren emaitza ere bada.

Komunikabideek ere badaukate ardura?

Emakumezkoen kirolari, orokorrean, leku gutxi egiten zaio, informazioaren trataera ez da parekidea...

Zuek aldagelan gauza horietaz hitz egiten zenuen?

Bai, baina azkenean, guk ere normalizatu egin ditugu egoera horiek. Titulu bat irabazi izan dugunean prentsa guztia gainera etorri zaigu, baina bestela ez daukagu presentzia jarraiturik komunikabideetan, eta ohitu egin gara horretara. Gure zortea da futbola futbola dela, zeren emakumeen beste kirol batzuk oraindik gutxiago errespetatzen dira. Beti itzalean bizi izan garenez, normalizatu egin dugu hor egotea. Badakizu ez dela justua, baina ez duzu beti haserre egon nahi.

Zure ibilbidean nortzuk izan dira erreferente handienak?

Jende asko da garrantzitsua pertsona bakar baten kirol ibilbidean. 2002ko emakumezkoen San Mameseko partida hartan ikusi nuen taldea bera, adibidez. Nire lehen erreferenteak honakoak izan ziren eta, gainera, horietako batzuekin aldagela konpartitu dut gerora: Ainhoa Tirapu, Eli Ibarra, Iraia Iturregi, Erika Vázquez... gero, atzelari moduan, Irene Paredes handiarekin jokatzeko aukera izatea kristorena izan da. Ez bakarrik munduko atzelaririk onenetakoa delako, berdintasunaren bidean erreferente izan delako ere bai. Oso eskertuta nago Athle-

ticera ekarri ninduen jendearekin, une zailetan lagundu nautenekin, bidelagunekin... urte asko egin ditut Athleticeko aldagelan eta bizi guztirako lagunak egin ditut.

Gizonen taldeko kapitainaren agurrarekin batera publikatu zen zurea. Konparaketak nazkagarriak dira, baina zu etengabe ari zara kolektiboaz hizketan.

Niri futbola, kirola egiteaz aparte, aukera eman dit emakumezkoen futbolaren garapenean nire ekarpena egiteko. Horrek ni baino askoz handiagoa den aldaketa baten parte izateko aukera eman dit. Eta badakit nik izan ditudan aukerak izan badituz, izan dela, beste batzuek aurretik lan bat egin dutelako.



Etorkizun ez oso urrunean, gustatuko litzaidake gizonen eta emakumeek elkarrekin negoziatzea hitzarmen kolektiboa"

Zure ibilbidetik momenturen bat kendu beharko bazenu?

Esango nizuke lesioa, baina azkenean kirol ibilbidean, bizitzan bezala, momentu onak eta txarrak daude. Lesioa gogorra izan da emozionalki, baina nire kirol ibilbidea osorik onartu nahi dut. Pozik eta harro nago nire ametsa bete dudalako.

Inoiz pentsatu duzu gizonen taldean jokatu izan bazenu, orain beste leku batean egongo zinatekeela? Damurik edo baduzu? Gizon ez izatearen damua? Kar-kar-kar.

Beno, futbola beste modu batera bizitzearen damua edo.

Hau da egokitu zaiguna, eta berriro esango dut: gu baino handiagoa den aldaketa baten parte izan gara eta hori ederra da. Ez nuke ezer aldatuko. ●

EuskarAbentura

espedizioa

2025

2008, 2009 eta 2010* urteetan jaiotako gazteentzat!
*aukera hau bakarrik Lapurdi, Baxe-nafarroa, Zuberoa eta diasporako gazteentzako

Izena emateko azken eguna:
2025eko martxoak 5
Hautatuen zerrendaren argitalpena: **2025eko apirilak 22**

HAUTAGAITZA AURKEZTEKO

„honakoa aurkeztu behar duzu:
PROIEKTU BAT + AURKEZPEN BIDEOA
Informazio gehiago:

[@euskarabentura](#) #euskarabentura2025
www.euskarabentura.eus
izenematea@euskarabentura.eus

Partenariak:

- bbke
- Bilbao
- Koliku
- GEU
- UN
- ALC
- EUIE
- berria
- eitb
- ARGIA
- TEKON
- naiz



Zenbat da inportantea?



XIMUN FUCHS
ANTZERKILARIA

Udazkena amaitzen den ber, Euskararen Egunean, euskararen urtaroan edo Durangoko Azokan beleak agertzen dira. Euskararen erabileraren inkesta soziolinguistikoen emaitzez jakitun, "*politically correct*" ariketak ez du inor harritzen jada. Ttattarrik gabe, *cool* eta irria ahoan, denek adierazten diote beren atxikimendua euskarari eta euskal kulturari. Kar-kar-kar. Sekula irakurriko ez dituzten urteko liburuak erosi eta betiko adierazpenak egin: "Euskal kultura oooooo inportantea da".

Baina, zenbat da inportantea? Erronkaren bihotzera jo behar da: *zenbat* horretara. Dirutan, zenbat da inportantea? Zeren hemen, euskal kulturaren eragileek gosez daudela elikatzen dute hain inportantea den kultura hori. Lanarteak ateratako inkesta berria frogatzat, prekaritatea da nagusi kultur eragile eta sortzaileen artean, eskaintzaren eta irisgarritasunaren kalterako.

Egungo administrazioen politikek ezindurik, euskaraz sortu eta ekoitzitako obrak ezin zaizkio euskal herritarron gehiengoari iritsi. Gure herrian, klase politikoaren utzikieririk gabe ez litzateke diskriminazio antolatu eta sistematiko hau posible izango. Utzikieria, ezjakintasuna, kolonizatuaren konplexua, anbizio eskasia, akulturazioa... ez dakit zehazki zerk bultzatzen duen bizi dugun suntsitze kultural jarraikia.

Gure herrian,
klase politikoaren
utzikieririk gabe ez
litzateke diskriminazio
antolatu eta sistematiko
hau posible izango

Gure gazteriari euskal pentsaera eta sentiberatasuna garatzea debekatzen zaio, ez baitzaio bermatzen edozein sistemak sustatu behar lukeen betebeharrak: emantzipaziorako gaitasuna suposatzen duen hezkuntza kultural duin bat. Horrek dit bihotza eta zintzurra hertsatzen, ez nire ofizioak. Azken batean, nire ofizioa nik hautatu dut, baina nire haurrek ez dute egoera hau hautatu. Beraiena ez den hizkuntza batean eta arrotzak zaizkien eredu batzuen menpe loratzera behartzen zaie, euskara arrotz bilakatuz eta euskal kultura "paleo-kultura" estatusera lekutuz.

Saiak beleari esker iristen dira hilotzaren haragiaz gozatzera, beti. Gaur egun, Stanfordeko Unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, maitasun topa-

keten %60,76 online egiten dira. Hots, amodio istorioen gehiengoa komertzializatua da. Plataforma horiek garatzen duten eredia errotik patriarkala da eta gaztelaniaz edo frantsesez mintzo da. Jendartearen intimitatea ere saldu da, merke, barne erbestera behartzen gaituen hizkuntza batean zabaldu eta garatu gaitezen. Gure haurrez mintzo naiz, beraien bihotz, arima, koskoil eta obarioez. Beleek salduak saien gozameneko.

Urteroko aurrekontuen negoziazioaren dantzan, euskal kultura ez da lerroburu bat izan; ez lerroburu, ez eta gai ere, segur aski. Oooooo inportantea izan arren, euskal kultura ez delako gai bat errealki. Alta, ez litzateke hain garesti gure gazteriaren oinarrizko eskubideak bermatzea. Gauza sinpleak sustatuz, harkada batean egoerari bihurtu bat eskaintzeko aukera logoke.

Zenbakitan idatzita, urtero haur eta gazte bakoitzak antzezlan pare bat, liburu pare bat, disko pare bat, film pare bat, nahiz bertso saio pare bat gozatze-ko eskubidea ukan beharko luke, bere ongizate eta emantzipaziorako. Astero poema pare bat maitasuna adierazteko, "*switch*" kulturatik at.

Ez dakit nola eta noiz egingo diogun planto beleen iruzurrari, baina goiz edo berant behartuak izango gara, ez badugu guhaurek gure garunen eta bihotzen kolonizazioaren konplize izan nahi. Edo bai. Hautu kontu bat da. ●

Büxarik ez, milesker



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Usaian bezala, agertu ziren baratze zokotik, Mercedesa pasaia-
ren erdian berean aparkaturik, errotak ez zikintzeko belar eta istiletan, eta jin ziren atarirainoko bidexkan gairi, triki-traka, plater handi bat eskutan. Usaian bezala, ageri zen *la bûche* prestatu zutela. Frantsesez *bûche* izan daiteke egur mukur bat, pertsona zozo bat, eroriko bat... orduko kasuan, urte guziz bezala, biskotxa zen; dei genezake *enborra* baina dei dezagun *büxa*, giroan murgiltzeko doia. Patizeriak bizpahiru kilo pisatzen zituzkeen, bederen, emazteak ibiltzean zuen balantzaren arabera neurtuz gero.

Denek ditugu *büxa* egileak inguruan, urte guztiz etortzen dira familia bazkarrira, Eguberri bezperan. Familia urrunekoak dira, kusiak hiru edo laugarren graduaren edo agian koinataren sortetxeko auzoak, eta beraz, berez, ez lukete hor egoterik. Diot ez luketela horretarako obligaziorik, egin lezaketela zernahi anartean: mendian korritzera joan, jate-txe on bat probatu, erreportaje bat begiratu TV5 Monde katean, herriko ostatuan egon lagunekin ikusiak oro kritikatzan. Baina ez, nahiago izaten dute Eguberriko bazkarrira jin, ez baitira urrun bizi eta pla-

zera baita gainerakoon ikustea, diotenez. Alta, urteetako esperientziak salatzen digu arrazoi nagusia besterik izan daitekeela. Dena dela, *büxa* estakuru, hor dira, tanko tenorez.

Aperitifatik haste, zepoak hedaturik ziren: bi solas inutelen artetik, François Bayrou Frantziako lehen ministro izendatu izanaz, gainerakoek zer zioten galdegin zuten. "Ikusiko" etsitua eman zitzaien arrapostu lausoki, eta haiek, isildu beharrean, hasi espantatzen gizona, bertakoa, kapablea, kuraia franko dukeena. Xanpaina sorta bat zintzurrean behera. "Has-beeen horrekin? Ez da iraultzarik gertatuko hasteko!", behaztopatu zen baten bat. Dudarik gabe, tentu handiagoz eta finago ibili beharko zen, bazkari-tregua zalapartara amilduko ez bazen...

Mahai inguruan denetarik baitziren. Baziren lanik egiteko beharrik ez dutenak, lan duin bat ukaiteko zazpi ahalak egiten dituztenak, langileak atzemateko zailtasunak dituztenak -gaurko egunean jendeak oro alferrak baitira eta SMICatik [Frantziako lanbide arteko gutxieneko soldata] harako handinahiek-. Baziren etxea pagatua dutenak, etxeko alokairua emendatzen ikusi dutenak behin eta behin, oraino hamabost urteko kredituak

dituztenak eta "inbertsioak" egiten ari direnak. Baziren zergarik ordaintzen ez dutenak eta urte guztiz irabazien gaineko zerga saihesteko lanetan aritzen direnak. Baziren urtean lau bidaia egiten dituztenak, sekulan bakar bat ere egin ez dutenak eta urtez urte betiko lekura joaten direnak. Baziren Mercedesaren dutenak eta Twingo zahar batean ibiltzen direnak. Zorrez itoak eta sosaz zer egin ez dakitenak. Nagusiak, langileak, funtzionarioak, independenteak. Elkarriz kalapitarako amua sekulan luzatu gabe ibili ziren, iaio-ki, heldu zen arte desertaren tenorea.

Beti bezala, *büxa* banillazko gurin kremaz hornitua zen, Grand Marnier sorta luze batez busti bixkotxean kiribildurik eta txokolatez troxaturik; hori dena bi dozena sujet tipiz apaindurik.

Ahamen bakoitza zintzurrean barna zihuan, sabelean pausatzeko: bizitzaren lasta, aldaketaren pisu-galia. Horretarako etortzen baitira, *büxa* eskutan, ikusteko deus ez dela uzkailean, egiaztatzeko beste batzuek urte dorpearen hondarrean lerroka ditzaketan arrakasta ñimiñoek ez diotela haien lorpen pertsonal itzelari itzal gehiegi egiten eta segurtatzeko gauzak bide berdintsutik joanen direla, beste urtebetez, bederen. ●



RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA
IRAKASLEA

Palestinarenak (eta munduarenak) egin du

Munduarenak ere egin du, sinbolo bat delako aspaldi, zeren eta historian lehenago ere egin dira genozidioak eta egingo dira gehiago (zorte txarra, aizu, han jaiotzea egokitu zaizu), baina Palestinarenak ezaugarri bereziak ditu:

- Aspaldikoa da, XIX. mendearen hondar-rean bururatu zitzaion Theodor Herzl-i judutarrek behar zutela estatu bat non euren erlijioa nagusi izango zen, nola kristauek, musulmanek, hinduek edo budistek. Hiru aukera mahai gainean zizutzen; Palestina aukeratu zuten. (Zorte txarra, aizu...).
- II. Mundu Gerra bukatu zelarik, karanbola perfektua egokitu zen: batetik, proiektu sionista ordurako martxan eta, bestetik, antisemitismoa. Judutarren kontrako genozidioaren ondoren, Europako herrialdeei zegokien judutarrei (eta naziek akabatutako beste herri eta pertsoneri) erreparazioa eta aitortza ematea Europan bertan, baina Israelgo Estatuaren sortzeko proiektua mahai gainean egonda: *win-win*. (Zorte txarra, aizu...).
- Duela 142 urte lehen koloniak ezarri zituztenetik genozidio osoa dokumentatuta dago, filmatuta, gaur egun online emanda...

Eta gauzak horrela, Israeliek palestinar lurretatik palestinar herriaren erabateko desagerpena azken bururaino eramanez

gero, ezin da egon itxaropen onik gainerako herri eta pertsonentzat ere.

Zergatik egin zuten 2023ko urriko erasoaldia palestinarrek, itxura guztien arabera baldin bazekiten Israeliek "gogor" erantzungo zuela? Bada, batetik, Israelgo gizarte zibila izutu eta baldintza horietan bakerik ezin dela egon erakusteko eta, bestetik, nazioarteko komunitateak (guk) erreakzionatu (gen)zezan. Nazioarteko komunitateak erreakzionatu du? Euskal Herriak?

Herrialde gutxi dago non gizartean Palestinaren aldeko elkartasun sentimendua hain sustraituta dagoen. Manifestazioak egi(te)n ditugu, Maccabi datorrenean salatu, banderak leiho eta balkoietan paratu, kufijak lepoan eramanez...

Baina, CAFek Israelgo koloniak lotuko dituen tranbia eraikitzen jarraitzen du, Euskal Herriko arma enpresek Israelgo armada hornitzen dute. "Gure" gobernu eta unibertsitateek ez dute adierazi boikot edo harreman hausturarik Israelgoekin.

Beraz, munduko ipar-mendebaldean Palestinaren alde gehien lerratzen den gizarteetako bat gurea izan eta emaitza hau bada, genozidioa ez da etengo.

Ez dago itxaropenik Palestinarentzat, ez eta Euskal Herriarentzat ere. Gizakien munduarentzat etorkizuna jokatzeko ari gara -han, eta beltz-beltza dago. ●

Elurra



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Elurrak lurra ezkutatzeko du, baita laketu nahian dabilzanen izakiek utzitako arrastoak ere. Elurraren edertasunaren azpian denbora dago, urteak, belaunaldiak, efemerideak, hitzorduak; baina denborak aurrera egiten duenean esan gabeko hitzak agertzen dira lehenago edo geroago. Elurrak oroitarazten digu labain gintezekeela, eta erori. Nonbaiten elurra egiten duen bitartean, norbait idazten ari da, izan kanta edo poema. Izan ere, poemek eta kantek elurraren albo-ondorio berberak dituzte: aztoratzen gaituzte, oztupo dira zenbaitetan, gaixotu gaitzaketek; baina, horretaz gain, edo horren gainetik, gure gorputzaren atalak sentiarazteko

balio digute. Denborari neurria hartzeko balio digute. Elurra ziurgabetasuna da, baina baita ere edertasuna, hotza, urruntasuna, isolamendua. Bere azpian oroitza-penak ezkutatzeko dira hildako mendizale baten gisan. Batzuk azaleratu egingo dira lurmentzearekin batera; beste batzuk, ordea, haren azpian lurperatuta geratuko dira betiko. Behin gorputz izan ziren gorpuak. Elurra, basamortua edo itsasoa bezala, begira dagoenaren ispilu bihurtzen dela esango genuke. Horregatik kanpoko elurra urtu edo izoztu aurretik, bizi izan dugun guztia idatziz utzi nahi izaten dugu, eta oparitu elurra iristen ez den lekuetan daudenei. ●

Hiru abiadurako Euskal Herria



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

ratzarri ginelarik, kulturalki eta administratiboki, paisaiak hiru abiadurako deserri bat erakusten zuen.

Kulturari dagokionez, hori baieztatzeke –berriro– aukera eduki nuen joan den azaroaren 14an, Ortzazeko Menta liburu-denda goxoan. Hara bildu ginen Eñaut Etxamendik aurkeztu zuelako *Gilentegilo Gilen* nobelaren edizio berria (1987ko Irun Hiria Saria).

Jende multzo ederra bildu zen heldu den urtean 90 urte egingo dituen ezterenzubitarren hitzak entzuteko. Etxamendik aitortu zuen *Gilentegilo Gilen* “*ebaxka*”, “*hatsa-patsaka*” idatzitako liburua dela. Hainbeste egiteko zen... Premiazkoa zen nekazaritzan, politikan, kantuan, irakaskuntzan aritzea, buruan “*Amiketarat*” [Ameriketara] joatea besterik ez zuen gazteria bat Nafarroa Beherean geldi eta bizi zedin. Literaturan ere bai, noski. Irulegiko Irratiaren web-orrian entzun dudana audioetik transkribatzen ditut haren hitzak, ahalik eta fidelen: “Hemen ziizten gazteak partikularzki, baina ez bakarrik gazteak, edozein adinetakoek, euskaraz dakigun ber, behar dugu entseatu, pape-raren gainean ezarri... Nik banakien ez niala irakurle handirik ukanen, ez nian

Bakoitzak bere indarrak
baizik baliatu ezin
dituelako ebidentziatik,
Eñaut Etxamendi baikor
da; Nafarroa Beherean
zerbait mugitzen hasi
dela atzematen du

muaienik ikusten, nola ezagutuarazten ahal nitien ene istorioak jendeer; baina baizik ez balitz ere irakurtuko lukeenik, behar dut harendako segitu bururaino... noizbait menturaz baliatuko dik norbaiten euskara bizirik atxikitzeke. Orduan, ene desiorik minena da zuen artean, zuen inguruan, idazleak atera diten. Baitezpadakoa da hori”.

Hiru abiaduratako Euskal Herrian bizi gara, eta horrenbestez, literaturaren aldeko kantu hori arrotz edo aspaldikoa,

tokiz kanpokoa, irudi lekiok, menturaz, EAEko idazle gazte bati; hunkigarria suertatu zitzaigun, ordea, joan diren urteetako frantsesaren uholde azkarrak erabat ito ez dituen entzule baxenafartarrei, edo gure lehen motibazioak ahazteko arrazoi sendoegirik ikusten ez dugun Nafarroa Garaikooi. Damurik, “abiadura handiko” Euskal Herriko alerik ez zen izan hitzaldian. Ez eta ondorengo egunetan berria zabaltzen ahal zuen medioren ordekaririk ere. Nago hiru abiaduren ondorioetako bat ez ote den elkarri bizkar emanda bizitze hau, nik sekula eza-gutu handiena, beharbada.

Bakoitzak bere indarrak baizik baliatu ezin dituelako ebidentziatik, Etxamendi baikor da, ordea; Nafarroa Beherean zerbait mugitzen hasi dela atzematen du, literaturan, noski, baita beste hainbat arlotan ere. Handik datorenen produkzioari begira, kantitatez eta kalitatez, ez duke arrazoi falta. Euskal literatura, ausart nadin esaten, *arrabiatu* da Nafarroa Beherean (kontuz, abiadura handiko hori, *arrabiatzea* eta *amorratzea* bi gauza dira). Etxamendik esperantzaz betetako hitzekin finitu zuen hitzaldia: “Zauriekilan bizi guztia pasata, zorionean ari naiz zahartzen”. ●

ARGIA BIZI BARATZEA

Garbiñe Larrearen liburu berria:

*Kendu zure bizitzatik
100 toxiko*

Nola egin kosmetiko segurua etxean

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Nobedadea

KOSMETIKOAK
Sendabelarrekin

Zak znik optoaren ederra

28€

Sarean eduki guztiak irekita **zuri esker**

Lagundu sare
libreari eusten:

argia.eus/eginargiakoa

 ARGIA

Desinformazioari aurre egiteko.
Ezkerreko ikuspegi batetik,
Euskal Herri kritiko, konprometitu
eta euskalduna elikatu nahi dugu.



DBHn azterketa tradizionalen eskema apurtzea ez da utopia bat

Ikasgaia ba ote dakizun frogatzeko eta horren arabera nota jartzeko hiruhileko amaierako azterketarik ez dago Laskorain ikastolan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloan. Baina orduan, nola ebaluatzen dituzte ikasleak? Nondik ateratzen da azken kalifikazioa? Batxilerrera ongi prestatuta iristen al dira?... “DBHn aldaketak egitea ez da ohikoa eta ez da erraza, baina ez da ezinezkoa”, kontatu digute.

  MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Hasieratik utzi digute garbi: azterketak egin egiten dituzte Tolosako Laskorain ikastolan, baina ez modu tradizionalen. Ez dira ikasgaia amaitutakoan kalifikazioa jartzeko balio duten etsaminak, dira prozesuan zehar egiten diren probak, askotan kalifikaziorik ez daramatenak, ikasleek jakiteko zer ari diren ongi egiten –zeren ikaslearen indarguneak azpimarratzea, motibatze aukera paregabea izateaz gain, ikasteko modu eraginkorra da– eta zer duten hobetzeko –indarrak non jarri seinalatzen diete, zerrendatu ordeztasunak saturatuko duten akats eta hobetu beharreko pila bat–. Irakaslearen oharrek lagunduta, ikasleak aurrera egiten segitzeko tresna bat gehiago dira azterketak, baina oro har ez dira amaierako probak. Zazpi ikastola ari dira eredu horretan lanean, Laskorainen DBH1en eza zuri zuten iaz, ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara inplementatu dute, eta pixkanaka maila guztietara zabaltzea da asmoa, Batxilerrereko urteak barne. Bidean aurkituriko galdera, kezka eta ondorioetan murgildu aurretik, kontatu dezagun proiektua pausoz pauso.

Ikasleak bi izar eta desio bat jasotzen ditu, ongi egindako bi gauza eta hobetu beharreko bat.

“Ikerketek diote ongi egiten dugunetik ikasten dugula batez ere, eta gainera, zein inportantea den motibazioa eta ilusioa mantentzeko”

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eredu oso zaharkituta zegoela eta, diziplina arteko proiektuei eman diete bide Laskorainen: gero eta eskola gehiagok egiten duten gisan, arlo eta ikasgai ezberdinetako jakintzak eta erronkak uztartzen dituzten proiektuan egiten dute lan ikasleek, eta horri lotuta ulertu behar da martxan jarri duten ebaluazio sistema. Hala azaldu digute Ainhoa Artolazabal Laskoraingo zuzendariak eta Ion Ander Maiz pedagogia arduradunak.

“Ikerketek diotenez, azterketa tradizionalak badute eragina ikas-prozesuaren hobekuntzan, baina ahanzturaren kurbak gero beherakada handia du; alegia, memorizatzen dugu, baina denbora gutxian jakintza horretako asko ahaztu egiten zaigu. Aldiz, ebaluazio hezigarriak bide bat erakusten digu, azterketa amaieran egin beharrean, hasieran eta prozesuan zehar eginda ikasleari esaten diolako momentuoro non dagoen, zer egiten duen ongi eta zer hobetu behar duen, eta guk hor kokatzen ditugu etsaminak, beste ebaluazio tresna batzuekin batera. Azterketa horrek ez dauka kalifikaziorik, irakasle gisa ez zaidalako interesatzen azterketa horretan zenbateraino demostratu didan, baizik eta ondoren eskatuko diodan integrazio jardueran, proiektuan, idazlanean edo dena dela koan erabiltzen jakitea. Kompetentziei jarraiki, ikasitakoa testuinguru errealean erabiltzea baita helburua”.

BI IZAR ETA DESIO BAT

Azterketaren funtzioa erabat aldatzen da, eta horregatik da hain inportantea azterketa “ongi” irakurtzen jakitea, ondorio baliagarriak ateratzeko. Bide horretan, jakina, irakaslearen feedbacka



Ainhoa Artolazabal Laskorain
ikastolako zuzendaria eta Ion Ander
Maiz pedagogia arduraduna.



funtsezkoa da. Azterketaren ostean, baina baita proiektuen, lan baten, aurkezpen edo idazlan baten ostean ere –ebaluzeko erreminten artean, bat gehiago baino ez delako etsamina–, feedbacka antolatuta dute Laskorainen: ikasleak bi izar eta desio bat jasotzen ditu, ongi egindako bi gauza eta hobetu beharreko bat. “Ongi egin dituenak azpimarratuta, hurrengoetan ere errepikatzeko eraginkorra delako, ikerketek diote ongi egiten dugunetik ikasten dugula batez ere, eta gainera, zein inportantea den motibazioa eta ilusioa mantentzeko. Hobetu beharrekoari begira, berriz, ohitura dugu boligrafo gorria hartu eta akats guztiak identifikatzeko, baina ikasleari hori bakarrik ematen badiogu, arriskua dago ikaslea kolapsatzekoa, lehentasunak zein diren eta indarrak non jarri ez asmatzekoa. Aldiz, irakasle gisa pentsatzen badut zein den lanaren edo proiektuaren helburua, hori lortzeko zertan –edo zein alderditan– zentratu behar duen ikasleak, hori helarazita lagundu egingo diogu aurrera egiten”. Gauzak nola adierazi ere garrantzitsua da, ez baita berdina akatsa seinatzeko edo hobetu beharrekoa zer den azaltzea. “Ez dezagun ahaztu, denok dugu zer hobetu, beti dago zerbait hobetzeko, eta ikasprozesuan eta bizitzan halaxe da, hori ez da akats bat, garatzen joatea da”.

“Ikasleek askoz hobeto egiten dute trantsizioa ebaluzio hezigarritan, irakasleek eta familiek baino. Azken finean, Lehen Hezkuntza gehiago gerturatzen da eredu berri honetara; aldatzen ginenak DBHko irakasleak ginen”

Adibide adierazgarria jarri digu arduradun pedagogikoak: “Txipiroiak tintan egiteko ikastaroan izena eman eta sukaldariak esaten badigu gatzaren puntuarekin asmatu dugula, tipula oso ongi gorritu dugula, hurrengoan ere ederki asko gogoratuko dugu. Aldiz, denbora guztian esaten ari bazaigu tipula gutxi, gatz gehiegi, tinta ere gaizki... nahaspila ederra sor dakiguke buruan, ez dugu dena prozesatuko; hobe da zertan zentratu adieraztea. Ebaluzio hezigarrian, txipiroiak egin bitartean probatu eta

probatu ari da sukaldaria, autoerregulatzen, apur bat gatz gutxiago eta ur gehiago, perrexila gutxiago... eta helburua da pixkanaka ikasleak berak jakitea kontrolatzen ea gatza ongi bota duen, ez dezan denbora guztian alboan irakaslea izan hori esaten”.

Hobetu eta hobetu, noiz arte, baina? Izango delako txipiroiak tintan primeran inoiz egingo ez dituen ikaslerik. “Irakasleak saiatu behar du ikaslea ahalik eta gehien gerturatu dadila arrakasta horretara, baina bakoitza bere neurrian: idazlanean justu ibili den ikasleari ez diogu esango Bikaina lortzeko egin behar duen guztia, joan beharko da eskalatzen, modelatzen, pixkanaka aldamioa egiten... eta feedback pertsonalizatua da eraginkorra. Horretan saiatzen gara, ahal dugun neurrian, ditugun ratioak kontuan hartuta”.

AZTERKETARI GORAZARRE

Aurretik aipaturiko guztia aintzat hartzen badugu, gure solaskideek diote azterketak oso tresna egokia direla ikasleak bere ikasketa prozesuari buruz gogoetatzeko eta autoerregulatzeko. Proba horretarako gaiak lantzen eta prestatzen jarriko da ikaslea, une jakin batean egoera jakin bati erantzuten, bakarrik, talde kooperatiborik eta irakasleen laguntzarik gabe, “eta hori



ere ikasketa da, baina hori probokatu nahi dugulako jarri behar da azterketa, eta ez alderantziz, azterketa ohituraz jarri, eta ondorioz hori guztia probokatu". Zer probokatu nahi den ere giltza da: ez da berdin "etzi azterketa egingo dugu" botatzea ikasgelan, edo ikasleei esatea "etzi idazlan bat egingo dugu, eta bertan landuko ditugu aurreko asteetan ikasitako hau, hori eta bestea".

EBALUAZIO-ALDIAK ETA AZKEN KALIFIKAZIOA

Ikasurte hasieran, aurre-ebaluazio bat egiten dute Laskorainen, kokatzeko. Ondoren, nahiz eta esan bezala etengabeko ebaluazio sistema erabili, ebaluazio-aldi edo sasoiak beste bi dira: abendu-urtarrilean bata, eta maiatza-ekainean bestea. Ikastetxe gehienetan hiru dira ebaluazio-aldiak, baina ikasurtea hasi eta hiru hilabetera ondorioren bat ateratzeko goizegi dela eta ikasleak ez dituztela artean nahikoa ezagutzen iritzi diote Laskorainen. Ikasleak, bai probetan, bai bi ebaluazio aldietan, lau lorpen mailaren arabera feedbacka jasotzen du: Hobetzekoa, Oinarrizkoa, Aurreratua eta Aditua. Ebaluazio-aldi deituriko horietan, ordura arte jasotako entrega, lan, proiektu, azterketa eta ebidentzia horiekin guztiekin kalifikatzen dituzte helburuak, eta ondorioz, dekretuak es-

DBHn eredu berria ezartzeko hautatu dituzten irakasle gehienak Batxilerrean irakasle aritzen direnak dira, eta berme handia da beren iritzia, ikasleek Batxilerrean aurkituko dutena ongi dakiten irakasleak direlako

katzen dituen konpetentzia zehatzak. "Lau-hileroko ebaluazio garaia mugarrria da, ezin dugulako eduki berarekin etengabe egon, baina ezta ere ez du esan nahi ikasleak eskuraturiko lorpen maila ezingo duenik hobetu. Batetik, edukiak barneratu ez baditu, indartze neurriak ditugu, aste bat antolatzen da beharra dutenekin talde txikitari aritzeko eta errefortzua eskaintzeko, eta aukera dute errehabilitatzeko. Bestetik, bigarren ebaluazioari begira –ikasurte amaierakoa–, eduki berriei heldu arren,

prozedurak hobetzen bai jarraitu dezake ikasleak, konpetentziak hobetzen, eta dekretuak dio konpetentziak ebaluatu behar ditugula. Edukiak modu bat dira konpetentzia horiek lortzeko". Aipaturiko lau lorpen mailak (Hobetzekoa, Oinarrizkoa, Aurreratua, Aditua) bosteko bihurtu behar ditu ikastetxe orok ikasurte bukaeran, Hezkuntza Sailak hala eskatuta: Gutxiegi, Nahikoa, Ongi, oso ongi, Bikain.

Familiak ere jasotzen du feedbacka, ikasleak baino gutxiago, laburpen bat. Proiektu bakoitzaren bukaeran buletina bidaltzen da etxera, proiektuak bilatzen dituen helburuekin, helburu bakoitzaren lorpen mailarekin eta irakasleak egindako hiru iruzkinekin: bi indargune eta hobetzeko bat. Ebaluazio-aldi bakoitzaren bukaeran, ikasgai bakoitzaren laburpena iristen da etxera, helburuekin, lorpen mailarekin eta tutorearen iruzkinekin.

KEZKAK, BELDURRAK ETA ONDORIOAK

"Ikasleek askoz hobeto egiten dute trantsizioa ebaluazio hezigarrirantz, irakasleek eta familiekin baino. Azken finean, Lehen Hezkuntza, etapa bezala eta dituen ezaugarriengatik, gehiago gertatzen da eredu berri honetara; aldatzen ginenak DBHko irakasleak ginen, beraz,

aldatu behar dugunak DBHko irakasleak eta familiak gara”. Baina halere, kezka eta beldurrak sortzea guztiz naturala eta humanoa dela diote, eta horregatik horiek identifikatzen eta dena ongi azaltzen saiatu dira aurretik. Errepikatzen den mamua zera izan ohi da, “aldaketa hauekin, gero Batxilerrean ongi moldatuko dira ikasleak?”.

Batetik, mamu hori bestela ere beti hor egon dela aipatu digute solaskideek –saltoa beti izan da handia Batxilerrera, eta DBHn ere mailaz maila salto handiak nabari ohi dituzte ikasleek–. “Konpetentziak oinarri dituen Eki ikas-materiala sartu genuenean ere, kezka berdinak azaleratu ziren, eta datuak hor daude, emaitzek ez dute okerrera egin Batxilerrean”.

Bestetik, iaz DBHko lehenengo mailan eredu berria ezartzeko Laskorainen hautatu zituzten irakasle gehien-gehienak Batxilerreko 2. mailan irakasle aritu ohi direnak izan ziren, eta berme handia da beren iritzia, ikasleek Batxilerrean aurkituko dutena ongi dakiten irakasleak direlako. Bada, irakasle horiek aho batez esan dute ez lirakeela lehenengo eredura itzuliko, bide zuzenean ikusten dutela aldaketa.

“Aldaketak egitea ez da ezinezkoa, baina gure esku dagoena egin dezakegu, hezkuntza sisteman dena ez baitago gure esku”

Ibilbidea iaz hasi zuten eta “ez zen erraza izan”, onartu dute, lana eskatzen duelako, sistema informatikoa aldatzea, material berria sortzea, irakasleak materialgintzarako eta formaziorako liberatzea... eta baliabideak eta dirua ere behar direlako. Gainera, aurreko etapetan baino zailagoa da DBHn aldaketak egitea, curriculumaren eskakizunak gero eta zehatzagoak direlako, egiturak berak ez duelako laguntzen –tutoreak ez du Lehen Hezkuntzan duen pisua, esaterako–, eta erreportaje honetan ebaluazio sisteman zentratu garen arren, hori aldatzeko eredu bera

eraldatu behar delako. “Baina ez da ezinezkoa”, gogoratu dute. Hori bai, “gure esku dagoena egin dezakegu, hezkuntza sisteman dena ez baitago gure esku”.

Aldaketaren ikasturtea positiboa izan da, irakasleak gustura daude eta ikasleak ere bai –hori da haiengandik jaso dutena–, eta eredu berriarekin ikasi ikasten dutela diote Maizek eta Artolazabalek. Orain urtarrilean egingo dute balorazio sakonagoa, baina argi dute zer hobetua izango dutela, ikasleei eurei esaten dieten moduan, beti dagoelako zer hobetu. Beste esperientzietatik, proiektuetatik eta ikastetxeetatik elikatzen eta ikasten jarraitzea gustatuko litzaieke, gainera.

Horren isla, duela gutxi Neus Sanmartí unibertsitateko irakasle eta ikerlari kataluniarrarekin eta haren taldearekin izandako bilera. Sanmartí erreferente bat da ebaluazio hezigarriari dagokionean, urteak daramatza gaia ikertzen eta ikastetxeak laguntzen, Ebaluatu Ikasteko lantaldearen buru. “Zer egiten ari garen azaldu genien, gure kezka eta galderak partekatu genituen, eta ikusi genuen bide onetik ari garela”. Eta hori ere akuilu da, jakina, erronkari ilusioz eta indartsu eusteko. ●

Urtarrilekoa, kalean!

**EUSKARA
IKASLEA
ZARA?
IRAKASLEA?**



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.

“Kalifikazioak ebaluazio osoa baldintzatzen du”

Bestelako ebaluazio eredu baten aldeko borroka eta gogoeta ez dira berriak. Horren erakusgarri, LAB sindikatuak duela urte batzuk gidaturiko prozesua: ebaluazioaz hitz egiteko jardunaldiak antolatu zituen, eta bertan ezagutu genituen azterketarik gabe funtzionatzen zuten ikastetxeak; hori bai, Lehen Hezkuntzakoak. *Ikastetxe hauetan etsaminik gabe ebaluatzen dute* erreportajearen kontatu genuen (ARGIA astekariaren 2.547 zenbakian).

Jardunaldien baitan, mahai-inguru baten bueltan ere jorratu zuten gaia. Ane Ablanado irakaslearentzat, esaterako, hutsunea da egiten dena ez dela ebaluazioa, kalifikazioa baizik, eta horrek baldintzatzen duela ebaluazio osoa. “Kalifikatzen duzun momentutik, gutxienekoa da gero zein ebaluazio egingo duzun, zeren nota jarri eta ikasturtea pasako al duen esan behar duzu, eta hori zalantzan jarri gabe, alferrik da. Dena da ebaluagarria? Bai, baina ezin da dena kalifikatu. Batzuetan obsesionatzen gara ea ebaluazio objektiboa posible den, ohartu gabe objektibotasuna bilatzen dugula kalifikatu behar dugulako: kalifikatu behar badugu, izan dadila ahalik eta objektiboen. Kalifikatzen ez dugu-

nean, behaketa ez da objektiboa, nola izango da objektiboa!”.

Auto-ebaluateaz ere kritiko aritu zen: “Ados nago irakasle eta ikasleen arteko asanbladekin, ikastetxeko bizitzaz edo ikasitakoaz eztabaidatu dezaten, baina ebaluazioari lotuta, azkenaldian bada joera bat haurrari bere prozesuan parte hartuarazteko, eta teoriarik ongi dago, baldin eta ulertzen badu haurrak nondik egiten den ebaluazio hori, zeren berak badaki zer egiten duen ongi eta zer gaizki, baina ez du modu txarrean bizi, harik eta helduarentzat gaizki dagoen hori hobetu behar duela esaten zaion arte. Ebaluazioa ikaslearekin adostearen arriskua da ikaslea bera bihurtzea bere buruaren polizia; irakasleak kalifikatu behar badu, irakasleak egin dezala, irakasleak jarri diezaiola 5 bat, ez diezaiola ikasleak bere buruari jarri 5 hori”.

Alexander Barandiaran irakasleak ere hausnarketa interesgarria utzi zuen, ikasleak ebaluatetik harago irakasleen jarduna ebaluatzeke aukeraz: “Ez dakit ikasleari esaten ote diogun ebaluatu dezala baita ere irakasleak berarekin izan duen jarrera, bere nahiak eta erritmoak errespetatuak izan al diren, zerbaitetarako balio izan al dion ikasitakoak... Bestela betikora

goaz, beste modu batean betikoa errepikatzen, fokua bakarrik ikasleetan jarriz, eta ez inguruan”.

EBALUAZIO HEZITZAILEAREN DEKALOGOA

Hezitzaileentzat lagungarri, dekalogoak kaleratu zuen sindikatuak, prozesu haren guztiaren emaitza. Laburrean, hamar ideia nagusi barnebiltzen ditu: ebaluazio eredu propioa behar da (zer, nola, noiz, nork eta zertarako ebaluatu aztertuta); ebaluatzea ez da kalifikatzea, eta indarguneak eta ahulguneak identifikatzeaz gain, horien zergatiak aztertu eta hobetzeko neurriak ezartzeko balio behar du; kanpo ebaluazioak ez du lehentasun izan behar; ikasle bakoitzaren erritmo, gaitasun, testuinguru eta berezitasunak ulertuz eta errespetatuz garatu behar da ebaluazioa; konpetentzietan ebaluatzeke formazioa indartu, marko erreferentziala osatu eta tresnak nahiz ereduak beharrezkoak dira; curriculum baldin bada bide-orria, etengabe ebaluatu beharreko atala da curriculum bera; notak eta kalifikazio-txostenak alboratu eta konpetentzien gaineko balorazio-txostenak hobesten dira; eta hezitzaileen, ikastetxeen eta sistemaren ebaluazioa ere beharrezkoa da. ●



Eskuineko irudian, Alexander Barandiaran, Lore Erriondo eta Ane Ablanado, ebaluazio hezitzailearen inguruko jardunaldietan.

HERRIZOMA

“Uste dugu distopien eta orokorrean errealtate indibidualista eta etsituaren ofentsiba kulturalaren aurrean utopiak irudikatu behar ditugula, mentalki eta emozionalki indartsuagoak izateko”, erranez banatu berri ditu ipuin eta itzulpen lehiaketako sariak Sukar Horia talde ekologistak. Etorkizun bizigarri bat eta bertara heltzeko bidea irudikatzea izan da literatura ariketaren erronka. ARGIAra ekarri dugu irabazle Agustin Arteagaren ipuina.

 AGUSTIN ARTEAGA  SHU OTERO

Gure herrian inork ez du goserik pasako; gure herrian inor ez da teilaturik gabe geratuko. Elkarrekiko konpromiso hori izan zen abiapuntua. Hamarnaka batu ginen, hamar elkarbizitza unitatek osatzen dute herri bat, unitate bakoitza edonolakoa dela ere: pertsona bakarrekoa edo seikoa; familia biologikoa edo lagun taldea; haur zein agure, zer dakit nik. Baina printzipio horren arabera bizitzeko apustuak elkar-tu gintuen: *Inork ez du goserik pasako; inor ez da teilaturik gabe geratuko.*

Nahiak eta beharrak batu gintuzten, ideologikoak edo materialak. Momentuko behar ukigarritik ez bazen, egunez egun haragitzen ikusten genituen mamuen beldurrez. Beldur garaia baitzen, joder, beldurra. Pandemia heldu zen aurrenik, gerrara eramanez gintuzten Europan bertan ondoren, klima gizakia bezain zoro egotearen zantzuak ematen hasia zen. Neofaxistak izan ziren herri-tarren izu-laborriarekin konektatzen trebeenak hasiera hartan, eta, ondorioz,

gero eta eskuinerago egin genuen denok: eskuin muturra demokrazia formalaren kristalezko sabaiak hautsi eta hautsi hauteskudeekin ere amaitu arte, eskuina eskuin muturrean, sozialdemokratik eskuinean, ezkertiarrek sozialdemokraziaren zontzia biziberritu nahian, ezker erradikala diskurtso apurtzaile bezain bizimodu kontinuitate egiten eta herritarren taupadarekin bat egiteko ezgai, ezkerreko independentistak metropolietako gobernu omen aurrerakoiak sustengatzen are eta okerragoen beldurrez... Zer esango dizuet nik, garai hartan beldurra jota ez ezik haserre ere banengoen, guztia-rekin eta guztiekin, eta boza nori emango eta eskuin muturrari. Tori argitasun estrategikoa.

Beldurgarriena ez zen hori guztia, ordea. Beldurgarriena zen etorkizuna are beldurgarriago irudikatzen genuela denok. Irudimen ariketa bat saiatuta ere ez ginen gai ordukoak baina etorkizun bizigarriagoak irudikatzeo, zer esanik

ez utopiak amesteko. Nola amestuko genuen kapitalismoaz harago, ez baginen kapitalismotik kanpo desiratzeo gai. Batzuk ezinikusiarrena egiten zuten kontsumo mozkorraldia ahal beste luzatuz, beste batzuk, kontrara, gozamen sadiko bat garatu zuten infernuari begirik kendu ez eta gainontzekoei hondamen saihestezina iragartzean, gehienak ahanztura eta beldur kolpeen artean saltoka bizi ginen... Ahal zuena egin zuten bakoitzak, zer dakit nik. Eskerrak amesgaizto garaietako ameslari zoro tematiei.

Errealtateak arrazoia emango zigun gainera, mugarriz mugarri, katebegiz katebegi. Laster heldu ziren Gazaren aurkako bomba nuklearra; Taiwanen okupazio militar yankia Harrisek aginduta eta Txinaren gerra deklarazioa AEBei; Europar Batasunaren eta Errusiaren arteko gerra zuzena ondorioz; Amazonia eta Australia ikaztu zituzten suteak eta Ingalaterra eta Japonia urperatu zituzten uholdeak; eta Gerra Eko-



GURE HERRIAN IN
EZ DU GOSERIK
GURE HERRI

BASA

ULTIMA

BAS RGEN

PORTAL
EXHIBITION



nomia, eta Derrigorrezko Elkartasun Zerbitzua, eta Errazionamendu Energetikoa... Eskerrak ordurako jada herrien artxipelagoa dezente garatuta zegoen, gure beldurrak baretzeko eta beharrak asetzeko euskarriak genituen, neurri batean behintzat, irteera ezkerretik eta behetik saiatu genezan, ez eskuinetik eta goitik. Eskerrak bai, asko batu baitzitzaizkigun orduan. Lehenago hasi bagina gehiago ginateteke gaur; baina orduan hasi ez bagina gaur ez ginateteke milaka, eta ez geundeke hemen bilduta. Ezta? Bo, nork jakin.

Hondamendiak aurreikusi ez genituen aukerak eta onurak ere ekarri zituen. Orain agerikoa eman dezake, baina nork pentsatuko luke orduan. Autoa aberatsenentzako pribilegio bihurtu eta arloko lantegi handiak kiebra jo zutenean pobreak dardarazi gintuen, bai. Baina etengabeko mugikortasunaren amaierak pertsonak bere herri eta auzoetara sustraitu zituen berriz ere, akabo bizilekutik 60 kilometrora lan egitea, akabo lotarako urbanizazio edo herriak. Turismo masiboaren amaierak herri eta

sektore ekonomiko osoak hondoratu zituen, zinez. Baina berarekin amildu zituena alokairuaren prezioak ere, eta jada urtean hiru hilabetetan ere erabiltzen ez ziren milaka eta milaka etxebizitzak okupatzea zentzu komuneko bihurtu zuen. Energia ekoizpenaren beherakadak eta gerra makinariaren behar asegaizak inposatuta Interneten kontsumoa mugatu zutenean eguneko hogei minutura, abstinentzia-krisi kolektiboaren bortitzak gu geu harritu gintuen. Baina behin adikzioaren larriena pasata, geldoago eta etengabeko estimulurik gabe bizitzen ikasi genuen ezinbestean, eta sare antisozialik gabe erlazionatzen. Desazelerazioa, deskonexio digitala, tokikotasuna... Ereiteko lur aproposago zapaltzen hasi ginen.

Lehen Bizi-Olatuaren parte izan zen nire herria, baina ez lehenetarikoa. Gu kideku ginenerako Gasteizen baziren lauzpabost kidesun-talde, Euskal Herrian hamarnaka batzuk. Herri izena geroago hartu genuen. Estreinako kidesun-talde horiek, aldi berean, urte batzuk lehenago ugaltzen joan ziren

elkarlaguntza sareetatik sortu ziren: elikadura sareetatik, etxebizitza sare eta sindikatuetatik, tokian tokiko talde feministetatik, auzogintza eta auzodefentsa kolektiboetatik... militanteak eta baztertuak batzen ziren mugimendu herritarretatik, nolabait esateko, edo eguneroko beharren asetzeko eta ikuspegi iraultzailea uztartu nahi zituzten esperientzietatik.

Handira joan naiz baina, barka, bueltatu gaitezen txikira. *Inork ez du goserik pasako; inor ez da teilaturik gabe geratuko.* Hori zen gure itsasgarri etikoa. Lehen herriak lagun eta behintzat ezagunen artean sortu zituzten, baina urratsez urrats aniztasuna irabazten joan ziren. Norbaitek ez bazuen sabeleratzeko nahikorik taldeak elikatzen zuen, norbait etxerik gabe geratzen bazen taldeak bilatzen zion sabai berria, edo taldekideren batek hartzen zuen berean. Talde bakoitzak bere modura egiten zuen: hangoek bizitza oso apartekoa egingo zuten larrialdiei erantzuteko orduan soilik partekatuz, hemengoek herri-biltegia sortuko zuten egoera edo-



zein zela ere jana kolektiboa izan zedin, jan ez ezik elkarrekin bizitzeko espazio komuna erosiko zuten batzuek, edo atari huts osoak okupatu besteek, zer dakit nik, zenbat herri, hainbat herrikada.

Gerra Aroan sakondu ahala, ordea, ikasi genuen ez zegoela herrikadarik herri baten autosustengua bermatu zezakeenik. Gero eta maizago ziren gehiegi herri bereko kide gosetu eta teilatugabetuak. Orduan egin genuen jausi bikoitza. Batetik, herrien artean saretu ginen, auzo mailan lehenbizi, hiri edo eskualdeka ondoren, Euskal Herri mailan azkenik, egungo Euskal Herrien Herrizoma izena hartu arte. Orduetik, herri bakoitza bere kabuz saiatzen da oinarritzko beharrei erantzuten, baina ezin duenean, beste batzuek ematen diete jana eta abarroa. Bestetik, estatuek umezurtz uzten ari ziren premiez ere arduratu behar genuela erabaki genuen: osasuna, zaintza, segurtasuna eta beste. Baita beharrezko ikusten genituen beste batzuek ere, ekoizpena eta jolasa kasu. Saretze eta sakontze prozesu horri deitzen diogu Bigarren Bizi-Olatua.

Eta orain Hirugarren Bizi-Olatuan murgilduta gaude. Ehunka gara jada herriak, milaka eta milaka herritarrak, batzuentzat giltzapetu beharreko terroristak gara, jakina –horregatik dira bilera hauek isilpekoak– baina askorentzat bagara ere, gaur eta hemen, bizitza propio bizigarri bat izateko aukera ukigarria, eta, etzi eta mundu osoan, mundu berri baten hazi. Ez da gutxi. Ez gara konformatzen. Boterea lehiatu nahi diogu Botereari boterea diluitzeko. Tori utopia. Hasteko, berak abandonatu dituen azpiegitura handiak okupatu. Orain arte okupatu ditugu lur sail txiki landugabeak, etxe hutsak, eraikin osoak ere inoiz, lokalak eta tailerrak; orain jabetuko gara lantegi handiez, azpiegitura energetikoez, auzo osoez. Horregatik gonbidatu zaituztegu ahoz aho eta atez ate, herri berriak osatu eta gurekin bat egin dezazuen.

Hori guztia badakizue, ordea, aurreko asteetako bileretan azaldu dizuete xeheago. Hemen bazaudete prest agertu zaretelako da. Hau da zirt edo zart giteko unea lagunok, ordubete barru

abiatuko gara, goiza urratzearekin. Norbaitek atzera egin nahi badu hau du azken geltokia, baina, batez ere, hau da azken zalantzak uxatu eta elkarri indarrak emateko unea. Ni irrikitan nago! Zuek?

Isiltasuna egin da argizariak erdizka argitzen duten aretoan. Ile aspaldian urdindun begiak lasai daude zirkulua osatuz begira dituen dozenaka begiei begira. Ez dira alferrik pasa, herri berri bat osatzeko parte hartu zuen lehenbiziko hartatik, hamaika urte eta ehunka asanblada.

- Beldur naiz. Joan nahi dut, baina beldur naiz –gazte batek urratu du isialdia–.

- Eskerrik asko aitortzeko ausardia izateagatik, beldurrak konpartitzea da gure indar iturri garrantzitsuenetarikoa. Beldurra zeri, Poliziari? Legea urratzeari? Zauritua edo espetxeratua izateari? Oso zentzuzko beldurrak, zinez. Hemen bazaudete beste beldur batzuk ere badituzuelako da, zer dakit nik bakardadeari, goseari, bizilagunei, Derrigorrezko Elkartasun Zerbitzuan gerra makinaria elikatzeari edo bere elikagai bihurtzeari.

Beldur horiek beste interesgarriago batzuegatik aldatzea eskaintzen dizuegu, eta horiei elkartasunez eta elkarrekin erantzutea. Eta baita gatzeta eta bizipoza ere, zer arraio.

- Nire beldurrak beste batzuk dira – ahoskatu du gorputz nekatu batek bere aulkitik, urte gutxiko bi ume altzoan-. Aurreko bileretan azaldu digute herrietan pertsona guztiek dutela arduraren bat, izan osasun arloan, berrerabilpen eta birziklatzean, segurtasunean, zaintzan, hezkuntzan, formazioan, agroekologian... Nik ez dakit ezer.

- Denok dakigu zer edo zer. Arduraren horietakoren batean ez, guztietan egingo duzu ekarpena, ardurak txandakakoak baitira. Gure mugimendua ez da hutsetik jaio, iturri zaharretatik edaten dugu beti berria den ura. Herrien antolakuntza eredu zehazki Brasiletik ekarri genuen. Iltzatuta geratu zitzaidan kanpamendu batean entzun nuena, oso aspaldi: “Nik Lurrik Gabeko Mugimendukoak terroristak zirela uste nuen, hori esaten dute hedabideek, lur hauek okupatzera batu nintzaizen ez nuelako ezer. Nik uste nuen ez nintzela gai. Baina izan nahiz osasun ardura-

dun, hezkuntza arduradun, segurtasun arduradun. Ikasi dut gai naizela. Nik uste nuen ez ginela gai. Baina poliziari eta pistolari aurre egin genien aurrenik, eta gure bizitokia altxatu ondoren. Ikasi dut gai garela, elkartuz gero”. Porztierto, ikasteaz ari garela, formakuntza lantaldetik eskatu didate *Desjabetuak* liburua ale hauek banatzea.

- Hara, iraultzaileak ere Biblia lagun, iraultzailea baina Biblia –adeitsu bota du zirtoa baina bota du agureak, begi kliska batez lagundurik–.

- Guk itsasargi deitzen diegu irakurketa kolektiboetarako erabiltzen ditugun liburuei, baina Biblia, izatekotan, berezia, mandamentuz baino galderaz betea –zirtoari zirto eta begi kliskari begi kliska, jolasti–. *Desjabetuak* etorkizun utopiko-destopiko batean kokatutako nobela da, Ursula K. Leguin idazleak mende bat dela idatzia, baina gaurkotan harrigarrikoa. Kapitalisten eta anarkisten arteko gerra zibila akordio batekin amaitu zen Urras planetan: anarkistak Urrasen satelite Anarres-era joango ziren, bertan bizitza nahieran antolatzeko. Orditik utopia hezuramaitzen ari dira bertan, ilar-

gia gogoratzen duen errekurso urriko mundu idor batean, ordea. Gu ere saiatzen gara kapitalismotik urrun bizitzen, Lurra konpartituta ere, gu ere ari gara utopia saiatzen idortu dugun mundu honetan. Leguinek bestelako mundu bat deskribatzen du, pobreagoa baina aberatsagoa, gatazkak eta kontraesanak dituen baina bestelakoak, bestelako pertsonak baitira anarrestarrak.

- *Touche* –errenditu da gogo onez agurea–. Akaso konfiantza gutxiegi du gure espeziean, baina muturreko berri bat hartzeko prest.

- Muturreko muturreko azken-urteko garaipenera arte, hori da jarrera! –esku zarta batek lagundu dio barreari–. Ezberdin bizi nahi dugu beste desira batzuk sortzeko, ezberdin desiratu nahi dugu beste bizimodu batzuk eraikitzeko. Bide zinez luzea, baina eman dugu urratsik. Gogoratzen Errazionamendu Energetikotik sare antisozialak erabiltzeko mugak ezabatu zituztenekoa? Aginte Zentralak ustez estrategikoa goak zituen eremuetan murriztu zuen energia gastua sareena biderkatzeko, nondik eta Portaera Antisozialak Ekiditeko Kamera Sare Inteligentetik.



Nonbait ikusi zuen fidagarriagoa zela sareek ekoizitako pertsona, kanpo kontrol hertsiarekin baina Internetik gabe hazitakoa baino. Are interesgarriago, ordea. Berrezarri zituztenerako Herrizomaren lurraldeetan ezberdin bizi ginen, neurri batean behintzat, eta gutako asko ez gara bueltatu sareetara, orain dohain eskaintzen badizkigute ere. Beste horrenbeste soldatapeko lanarekin. Asko dira Herrizomara langabeziaren ondorioz heldu, gerora enplegu eskaintza bat jaso eta ordurako nahiago dutenak bestela bizi. Bortxaz eta gure borondatearen aurka kanporatu gintuztenean berriz ere onartuak izatea erregutu genien, desesperatuta, kanpoan bizitza posiblerik ez zegoela sinetsita. Baina gero eta gehiago gara borondatez desertatzen dugunak, gure bizitza berriak justuagoak eta zoriontsuagoak zaizkigulako. Barka erredundantzia. Mende hasieran, nerabe nintzela, ama zenak nostalgiaz hitz egiten zidan aurreko diktaduraren hondar urteetako borroka giroaz. "Libreagoak ginen gauza gutxiago genituelako", errepikatzen zuen. Orain ulertzen dut zer esan nahi zuen.

- Dudan beldurra ez da txikia, baina emozioa handiagoa da -ahots lotsati batek, zirkuluaren bigarren lerroan hor nonbait ezkutuan-.

- Ondo entzun duzunaren seinale! -trumoi baten gisakoa da algara-. Hara. Mugimendura batu aurretik urteak eman nituen etxezulo, migrainaz migraina eta negarraldiz negarraldi ordaindu ezin nituen horma gero eta zatarragoen artean. Lagun batek arrastaka eramane ninduen auzoko etxebizitza sarera. Kostata baina utzi nintzen laguntzen, eta laguntzen hasi nintzen, eta bileretara joaten, eta ardurak konpartitzen, eta minak eta pozak partekatzen. Egun batean pintaketa berria irakurri nuen etxe ondoan: *Ez duzu psikologoa behar, sindikatua baizik*. Orduantxe ohar-tu nintzen hilabeteak neramatzala depresiorik eta migrainarik gabe. Ohartu nintzen ere egunero egiten nuela barre, eta ez diot egiteari utzi. Gazte nintzeneko profetia lazarrirenetako asko bete egin dira, baina orduan amestu-ezinak zitzaizkigun utopietako batzuk gure egunerokoa dira gaur. Lehena, mundu zoriontsu

eta justu bat irudikatzea. Barka erredundantzia. Ametsa izaten jarraitzen du baina utzi dio ameskeria izateari, mundu horren zantzuak eraikitzen ari gara uneoro. Hori egiten ari gara eta hori egingo dugu bi ordu barru, gaur okupatuko dugun eremuan sartzean. Ehunka lagun daude gu bezala bilduta hiriaren beste puntu batzuetan, orain da unea. Norbaitek nahiago baduzue gaurkoan ez batu lasai esan, ate-joka tematiak gara, berandu gabe gaituzue berriz zuenean gonbidapen berri batekin. Baina ez dizuet gomen-datzen... ederra izango da!...

- Denok bat orduan? Biba zuek! Biba gu! -urduritasunez eta emozioz leher-tutako txalo zaparradak ia estali du azken biba-. Hartu zuen gauzak eta igo pabiloiaren atzealdean zain dugun autobusera, bagoaz!

- Nora?

- Egia! Orain bidaide garelako partekatu dezakegu jada sekretua -irribarre konplize batek bete dio aurpegia-. Heriotz-iturri zena bizitza-iturri bilakatzerako goaz. Ezagutzen dituzue Mercedeseko lantegi abandonatuak?! ●



“ ”

Balear Uharteetako irla bakoitzean besteetan ez dagoen landare barietate asko dago

Aina Socies Fiol

Mallorcako Tokiko Barietateen Elkarteko koordinatzailea

Oporlekuekin soilik lotuko dituzte askok Balear Uharteak, baina agroekologiaren eta kontsumoaren bueltan mugimendu bizia dute Mallorca irlan: Associació de Varietats Locals de Mallorca (tokiko hazi barietateen elkarte) da horren adibide. Abenduaren hasieran, elkarte horretako koordinatzaile den Aina So-

cies Fiol Donostiako Kaxilda liburudendan izan zen hitzaldia ematen, Cristina Enea Fundazioaren Haziera proiektuak gonbidatuta. Euskal Herritik mugitu beharrik gabe, Mallorcara hurreratzeko aukera ederra izan zen, Kantinako sukaldariek prestatutako hango mokadu goxoarekin lagunduta.

 GARAZI ZABALETA  DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

Turismoak gogor jo du zuenean. Nola eragin du horrek nekazaritzan?

Eragin handia izan du turismoak irla guztietan. 1960ko hamarkada ingurura arte, herritar gehienak nekazaritzatik bizi ziren, baina garai hartan belaunaldien arteko erreleboan etena gertatu zen, jendea beste sektoreetako lanetara pasatu zelako. Nire etxekoa adibide argia da: artzaina zen nire aitona, eta familia osoa Mallorcako Prat de Sant Jordira joan zen bizitzera, aireportu inguruko lurretara, baratzerako toki oso aproposa zelako. Buruaskiak ziren: behiak zituzten, baratzea... baina, momentu batean, aireportuan lana eskaini zioten aitona. Artzaintzari eustea erabaki zuen berak, bere bizitza hori zelako, baina beste as-

kok ez zuten hautu hori egin. Eta, hurrengo belaunaldian, seme-alabetako inork ez zuen segi, errazagoa zelako turismoan, zerbitzuetan edo bestelakotan lan egitea.

Gutxi zarete hazien bueltan lanean ari zaretenak, baina badirudi mundu horrek baduela guztiz harrapatzen zaituzten zerbait. Zure kasuan, zer izan da?

Uste dut nire etxean betidanik egin den zerbait izateak bazuela bere garrantzia, azkenean, oso hurbiletik bizi izan bainuen, baina mundu honetan murgildu arte ez nion baliorik eman. Inguruko pertsonek, herrietako jendeak, mintegietako kideek, lan hori egiten zuten,

baina urteekin garrantzia galtzen ari zen eta asko jarduna uzten ari ziren. Nire belaunaldikook, oro har, bizkarra eman diogu lurrari. Hor dago, bizi naiteke landa eremuan, baina ez dut horrekin inolako loturarik. Orain hirian bizi naiz ni, baina badut nolabaiteko harremana, lurrarekin lotutako balore eta egiteko moduak defendatzen ditut. Kontua ez da lehengo bizitzara bueltatzea, baina bai orduko zenbait elementuri balioa ematea: zure hazi propioak gordetzea, ezagutzen duzun horrekin elikatzea. Erraza dirudi, baina gaur egun arraroa bihurtu da.

Irla izateak nola eragin du haziengan eta horien mugimenduetan?

Beti pentsatu dut ongi legokeela balear irla guztietan ikerketa sakonagoa egitea, gu batik bat Mallorcan ari baikara. Kontuan izan behar da Mediterraneo erdian gaudela eta kultura asko pasa direla bertatik, pena da hazien mugimenduei lotutako aztarnarik ez izatea. Egia da irla bakoitzak bere idiosinkrasia duela, desberdinak gara eta labore batzuk gailentzen dira bakoitzean. Menorca irla guztiz abeltzaina da, baina nekazaritzan, frutarbonatekin ari dira batik bat. Ibizan, olibondoak eta almendrondoak dira nagusi, eta Mallorcan, berriz, pikondoetan dugu aniztasun handia. Errepikatzen ez diren barietate asko dago; adibidez, Mallorcan oso bertakoa den eta guztiz integratua dagoen piper barietate bat dugu, *pebros*, entsaladan gordinen jaten dena. Besteetan ez dute piper hori. Bestalde, gure arteko lotura asko eta partekatzen ditugun barietateak ere badira. Esaterako, Ibizan tipula bat berreskuratu dugu, *ceba vermella eivissenca*, eta ohartu gara Mallorcako *ceba vermella d'Andratx*-en berdin-berdina dela! Andratx Ibizatik gertuen dagoen Mallorcako herrietako bat da, beraz, pentsatzekoa da lotura badutela. Zenbait meloi barietaterekin ere gertatu zaigu hori.

Mediterranea omen da klima aldaketaren eragin handiena sumatzen ari zareten tokietako bat. Nola bizi duzue hori, eta zein paper jokatzeko dute tokiko barietateek testuinguru ezegonkor honetan?

Uda oso luzeak eta lehorrak izaten ari gara azken urteetan. Gero, udazkenean, euria barra-barra egiten du, baina ondoren berriz lehortea, udaberrian ez baitu ia euririk egiten. Egoera horretan, zenbait tokiko barietate, mahastiak eta zereala adibidez, ongi ari dira egokitzen, lehortearen aurrean oso erresistenteak direlako. Zerealen kasuan, enpresa asko ari da alor esperimentalak egiten tokiko barietateekin eta hibridoekin, eta ikusi dute lehorteari hobeki erantzuten diotela tokikoek. Baina, aldis, Mallorcako txitxirioa, otsailean estentsiboan ereiten zena eta uda hasieran bildu, arazo handiak izaten ari da. Nekazariak pentsatzen ari dira baratzeko labore bezala, ureztatze sistema bidez lantzen hastea, edo udazkenean ereitea, bestela ez duelako ematen. Klima gero eta gogorragoa eta konplexuagoa izanen dugu, eta testuinguru horretan, tokiko barietate batzuk irabazten aterako dira, baina beste batzuk ez.



Associació de Varietats Locals de Mallorca elkartearen proiektuak

22 urte dira elkarte sortu zenetik, eta hainbat lan ildo izan arren, ardatz nagusi bat dute: tokiko barietateak ugaltzeko proiektua. “Urtero berritzen dugun barietateen katalogoa dugu. Balear Uharteetan hazi ekologikoak ekoizten dituen proiektu bakarra gara, eta Espainiako Estatuan ere gutxi gara”, dio Aina Sociesek. Haziak ugaltzeko guztira 22 ekoizlek hartzen du parte proiektuak.

“Hazien sobreak 40 denda kolaboratzailetan saltzen ditugu, eta sobreetan sartzeko lana buru osasuneko erakunde bateko kideek egiten dute, haiekin dugun lankidetzaz harremanaren bidez”.

Profesionalentzat nahiz eskoletako haurrentzat formazioak ere egiten dituzte elkartetik, eta hainbat ikerketa proiektu dituzte martxan, esaterako, arte gozoen inguruko bat.

Tomatiga de ramellet kasua: agroindustria tokiko barietatez jabetzen denean

Mallorcako tokiko barietate bat aipatzeko eskatzen badidazu, mundu guztiak ezagutzen duen barietate bat, *tomàtiga de ramellet* esanen dizut”, azaldu du Socie-sek. Hain justu barietate horri buruz egin du master amaierako lana. Zintzilikatzeke tomate mota bat da, ogi txigortuan zabaldua jateko aproposa, Tramontana mendilerroko Banyalbufar herrian jatorria duena. “Herri hori urteetan bizi izan da tomate mota horren ekoizpenetik, kaxak eta kaxak esportatzen zituzten Bartzelonara, txirikordetan jarrita. Emakumeen lana izaten zen txirikordatzea, eta etxeetako goialdeetan zintzilikatzen zituzten”, dio. Tomate mota horri lotutako ezagutza eta kultura zabalago dago herrian, eta etxe bakoitzak bere haziak gordetzen zituen.

Baina genetista israeldar batzuek Mallorcako hainbat etxaldetan ibili ziren tomate mota horrekin probak egiten, eta urteetako ikerketaren ondoren, tokiko barietatean oinarritutako hibrido bat sortu zuten. Gaur da eguna, supermerkatu eta banaketa kate handietan izendapen hori daraman tomate hibridoak saltzen dutena, tokiko barietatea balitz bezala.

Elkartetik borroka handia egin dute kasu honen harira, izan ere, legez debekatua dago tokiko barietate baten izena marka baterako erabiltzea. Praktikan, baina, gauzak beselakoak dira... “Hori gutxi balitz, Agromallorca banatzaile handiak ‘Tomàtiga de ramellet de Mallorca’ izeneko ‘berme zigilua’ sortu du barietate hibridoarentzat, administrazioaren onespenerekin. Gezurretan ari dira, kontseilaritzaren babesarekin”, dio. Mallorcan tokiko barietate askok biziraun dute bertako gastronomiarekin duten lotura estuari esker, horren kontziente da elkarteko kidea. Baina txanponaren beste alde ere hor dago, eta salatzen duenez, gastronomiaren izenean barietate asko “perbertitu” egin dira.



Zergatik da garrantzitsua tokiko barietateak kontserbatzea eta ugaltzea?

Elikadura burujabetzaren oinarria dirrelako eta zerekin elikatu nahi dugun erabakitzeke boterea ematen digutelako. Aukera ematen digute guk geuk erabakitzeke, edo inguruko nekazari-ek, toki bakoitzean zer erein nahi den. Honek ere erraza dirudi, baina gaur egun oso zaila da praktikan jartzea. Adibide bat: Mallorcako nekazari gehienek, baita ekologikoan ari direnek ere, Iberiar penintsulatik ekartzen dute barietate hibridoak plantela. Ba-

dirudi hazia, lurtean jartzen den lehen elementu hori, garrantziaren katean azken lekuan gelditzen dela.

Baina hazia nire irizpideen arabera urteetan aukeratzen badut, nire behar eta nahietara egokitua egonen da. Kanpotik ekarritakoa ez dakigu nongoa den, ezta zein portaera duen ere, hazien enpresa komertzialek erabakitzen dute zer ereinen duzun, eta horien meneko zara. Eta bestetik, tokiko barietateen alderdi kulturala ere hor dago: ondare immateriala, haziei lotutako ezagutza, maneia, errezetak, sukaldean prestatzeko moduak... ●





Jertsea **28 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosten duzun produktu bakoitzarekin, ekarpen ekonomikoa egiten diozu Mbolo Moye Doole elkarteari. Batez ere Senegaldik etorritako migratzailez osatutako Bilboko kale-saltzaileen elkartea da Mbolo.

ARGIA ASTEKARIA



Ezin urtea ondo hasi

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Urteko azken egunetan, eguzkiari emandako bira honetan jasotako gertakari esanguratsuenen bilduma osatzeko tartea hartu ohi da albistegietan. Hedabide bakoitzak baditu oso irizpide desberdinak lehen lerroa ekartzeko albiste egin nahi duena. Bat eta beste entzuten ari naizela, esan didate astekariko azken orriari (*Ezetz astea ondo bukatu* atala) lekua egiteko txoko honetan, eta 2024aren errepassoa Gorka Bereziartuarekin egin dut. Mundiala.

Aktualitateari beste perspektiba batetik begiratu eta hitzarekin jolas egin. Ondo daki hori egiten Bereziartuak eta uste dut gustura hartzen duela irakurleak kaleko elkarrizketa batean entzun lezakeen maneran irakurtzea; taber-

nako hizkera, jostaria, *xuxen*-i okerrekoa agindu eta lizentzia batzuk hartuta ("espainoletik ekarritako hitzak direnengan, saiatzen naiz kontuan hartzen iparraldeko irakurleak, hitz hori erabili ezta ere, ulertuko duela", azpimarratu du kazetariak).

Asteko albiste nagusiari heldu izan dio batzuetan, beti beste hari batzuei tiraka; baina sarri hartzen ditu egunerokotasunean entzun edo bizitakoak. Irakurri *Nire babes osoa* edo *Edalontzi hautsien amorrazioa*. "Igandeak ditut erreserbatuta artikulua hau idazteko eta normalean gaia ere egun horretan bertan aukeratzen dut", azaldu du kazetariak. "Jarraian idazten dut guztia normalean, momentuan ateratzen zaidan bezala; nago jendeak espontaneo izate

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“““

“Egiten ari zareten lan bikainak herritarren sostengua behar eta merezi duelako, dudarik gabe”.

Donostiatik Lorek

“Oso kazetaritza ona egiten duzuelako!”.

Bilbotik Itziarrek


“Kazetaritza independente eta euskalduna bultza nahi dudalako”.

Lezotik Aitzolek

hori jasotzen duela eta eskertu”, jarraitu du. Idazkera da momentuko izate hori ematen diona, ukitu berezia. Kazetaritzan hizkuntza neutralagoa irakurtzera ohituta gaude “eta horrek funtzionatzen du gauza askotarako”, gehitu digu azkar, “baina zerbait aldatzeko egin nahi den kazetaritzak idazkerarekin, hizkuntzarekin, hitzarekin jolas egitea ezinbestekoa dela ere uste dut”.

Lasai, irakurle, ez gatoz Gorka Bereziartua agurtzera, ezta gutxiagorik ere. Sekula irakurri gabea bazara, gonbita luzatu nahi dizugu sartzeko 2025eko egin beharrekoen zerrendan *Ezetz astea ondo bukatu* atala irakurtzea. Eta dagoneko ezaguna baduzu, jarrai ezazu beste pixka batean labanaz gozatzen.

Jo ezak berriz, Gorka. ●



Grezia, mende erdia monarkiarik gabe



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Grezia, 1975. Herrialdeak urtea errepublika gisa hasi zuen, hiru aste lehenago, 1974ko abenduaren 8ko erreferendumean, herritarrek monarkiaren amaiera erabaki ondoren.

Hamarkada bat lehenago, 1964an, Pablo I.a erregea hil zenean, Konstantino semeak hartu zuen tronua, 23 urte zituela.

Baina Grezia politikoki oso zatituta zegoen ordurako, eta errege gazteak ez zuen egoera hobetzeko pausorik eman. Alderantziz, lehen ministroarekiko harremanak okerrera egitea eragin zuen, eta, gainera, gobernu berria izendatzen ahalegindu zen hauteskundeak deitu gabe.

Krisi giro horretan, 1967an ejertzitoko ofizial batzuek estatu kolpea jo zuten eta, hala, Koronelen Diktadura bortitza abiatu zen. Hasieran Konstantinok, itxuraz behintzat, bat egin zuen buruzagi berriekin, baina berehala konplot bat prestatzen hasi zen koronelek ematen ez zioten boterea berreskuratzeko. Porrot egin zuen ahaleginean eta Italiara ihesi egin behar izan zuen.

1974an Koronelen Diktadura erori zenean, berriro ere Konstantinok koroa jantziko zuela zirudien. Hauteskundeak egin arte boterea hartu zuen behin behineko gobernu zibilak erregimen militarren konstituzioa baztertu, eta 1952koa berrezarri zuen; konstituzio horren arabera Grezia monarkia konstituzionala zen.

Baina hauteskundeen ondoren, Konstantinos Karamanlis lehen ministro hau-



Monarkiaren aurkako kartela, Greziako 1974ko erreferendumaren kanpainan.

tatu berriak monarkiaren etorkizuna erabakitzeke erreferenduma deitu zuen. Karamanlis alderdi kontserbadore monarkikoaren burua zen, eta ziur zegoen herritarrek monarkiaren alde egingo zutela. Erregea ere baikorra zen, 1973an BBCK elkarrizketa batean esan zituenak kontuan hartuta: "Baliteke erregeak er-

bestean bizi behar izatea, baina inork ezin ditu kargutik kendu. Erregea beti da errege. Erabat ziur nago nire herriak bere burua libreki adierazteko aukera duenean, gehiengo nabarmenak ni itzultzea nahiko duela". Abenduaren 8ko erreferendumean herritarren %69,11k ez itzultzeko esan zion. ●



INDONESIAKO MUSEO NAZIONALA

Herbehereetatik etxera

2017an Indonesiak eta Herbehereek akordio bat sinatu zuten, Europako herrialdeak hiru mendeko kolonialismoaren ondorioz lapurtutako ondarea itzultzeko helburuarekin. Gusti Agung Wesaka Puja itzultze prozesuaren arduradun indonesiarraren hitzetan, akordio hori garrantzitsua izan zen "nazioarteko komunitateari erakusteko Indonesiak objek-

tu horiek berreskuratzeko gaitasuna daukala". 2024aren amaieran prozesuaren balantzea egin dute eta, guztira, dagoeneko, 828 objektu itzuli dituztela jakinarazi dute, besteak beste, irudian ikusten den Prajnaparamitaren estatua. Baina Asia hego ekialdeko ondarea itzultzeko bidean oraindik hamarkada askoko lana dagoela jakinarazi dute adituek. ●

SASOITU

URTARRILA,
INTXAURRONDOAREN
LOALDIA

Kolore morez margotu dut urteko lehen hilabetea, sormena, irudimena, jakintza eta espiritualitatearen kolorez. Egun hotz eta izoztueta, eguzki izpiek on egiten digute. Energiaz betetzen gaituzte: indartu eta osatzen gaituzte. Intxaurren dutenean, hilik ez dagoela jakinarazten diote. Iluntasunari, hezetasunari, hotzari, bakardadeari aurre egitea ez da erraza, negua luze doa eta intxaurren barruko lanetan jarraitzen du, lotan atsedean hartzen.

Argitasuna gure barneko erlojuarekin, erritmo zirkadianoarekin bat doa. Argitasunak, elikadurak eta jateko momentuak erlazio zuzena dute gure osasunean, prozesu fisiologiko ugari arautzen dituzte: besteak beste, eragina dute loa eta esna-aldiaren zikloan, gorputzaren tenperaturaren erregulazioan, funtzio hormonaletan, metabolismoan eta digestioan. Gauean oso berandu jateak erritmo zirkadianoak apurtu ditzake. Ondorioz, estresaren hormona den kortisol mailak igotzen dira eta lo egiten laguntzen duen hormona, melatonina gutxiago ekoiztuko da, eta horrek eragina du lo kalitate eta kantitatean.

Gutxi eta arin afaldu, zopak eta barazki kremak oso egokiak dira. Antolakuntza eta erregulatasuna funtsezkoa da: garaiko jaki egokiak aukeratzea eta otordu-ordutegi sendoak ezartzea eta mantentzea. Fruta eta barazki koloretsuak gehitu, bereziki laranjak, horiak, moreak eta berdeak. Hazi eta fruitu lehorrekin ez ahaztu.

ZITRIKOAK

Ekologikoak diren zitrikoetatik dena erabiltzen dut, azala eta mamia. Hona erabiltzeko modu batzuk:



Azala birrindu dezakegu entsalada baten gainean jartzeko. Azal eta fruta konfitatuekin apaindu edo prestatu ditzakegu postreak. Azala oliotan edo ozipinetan utzi dezakegu aromatizatzeke. Arroz esnea prestatzen dudanean limoi eta laranja azala gehitzen dizkiot esneari, kanela zotzarekin batera.

Zitrikoaren zukuarekin, berriz, entsaladak goxatu ditzakegu. Gelatina egin dezakegu fruta zatiekin edo azalarekin, agar-agarrekin nahastuta. Haragi batzuekin laranja zukua gehitzen dut saltsa egiteko.

LIMOIAK

Tipula eta berakatzarekin batera, beti dut limoia inguruan. Zelulak eta ehunak

babesten dituzten substantzian aberatsak dira.

Limoi zukua ongi dator tentsio altuari eta arazo kardiobaskularrei aurre egiteko, estresari eta nekeari aurre egiteko edo organismoaren defentsak indartzeko. Ura eta eztiarekin nahastuta lagungarri da eztarri eta katarrotarako. Garai honetan, gehiegikerien ondoren, gorputza garbitu, alkalinizatu eta hidratatzeko egokia da.

LARANJAK ETA MANDARINAK

Laranjek eta mandarinek neguan horren beharrezko dugun eguzkia ekartzen digute ahora. Uda garaian zitrikoek eguzki-argia pilatu dute eta orain, neguan, eguzki izpiek indar gutxi dutenean, lurrak eguzkia fruta bihurtuta oparitzen digu.

C bitaminatan aberatsak eta antioxidatzaileak dira: sistema immunologikoa indartzen, infekzioen aurrean babesten, organismoaren defentsak sendotzen eta larruazala osasuntsu mantentzen laguntzen dute. Zelulen zahartzeari aurre egiteko baliagarri dira eta energiaz betetzen gaituzte.

Laranjek zuntz asko dutenez, asetasun-sentsazioa ematen digute, digestioa errazten dute eta hesteetako arazoan arriskua murrizten dute. Idorreria arazoentzat laranja lagun ona izan daiteke.

Kolesterola jaisten laguntzen dute, landare-esterolei esker. Potasio asko dutenez, odol-hodiak erlaxatu egiten dira, eta odola errazago jariatzen da. Hala, arteria-presioa jaisten da. Diuretikoak da.

Azido folikoaren bidez, globulu gorrien ekoizpenean, nerbio-sistemaren garapenean eta antigorputzen sorreran parte hartzen dute. Ezinbestekoa da anemia prebenitzeko, eta onura asko ditu haundun dauden emakumeentzat. ●



AMAIA DIAZ DE
MONASTERIOGUREN OSINAGA
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

A ZE FAUNA!

OHARTARAZPENAREN
ARTELANAK


Koloretsuak, distiratsuak, forma xe-
lebre bezain ederrekoak diren hei-
nean, nudibrankioek beste planeta
batetik iritsitako izakiak dirudite. Itsas
hondoko izaki biluzi hauek 1980ko ha-
markadako gandorretako kolore biziak
eta Parisko joskintzako izen handien
moda arkitektonikoa dituzte soinean.

Taldeari izena ematen dion ezauga-
rria beste itsas bareengandik bereizten
dituen gorputzaren atzealdean duten
mototsa da; hots, brankia biluzia. Mo-
totsa honek ere, taldeak bezala, forma
anitzak ditu: adar, luma, pinu itxura, ki-
ribila... Uzkia inguratzen duen lore sorta
baten antzekoa izanik, arnasketa fun-
tzioa betetzen du.

Beste itsas izaki askorentzat debeka-
tutako substantziez elikatzeko gaitasu-
na dute, hala nola, cnidarioez (marmo-
kak, anemonak, polipoak...) nahiz belaki
pozoitsuak. Hauek dituzten toxinen
eraginarekiko immuneak direnez, haien
zelula erresumingarriak arazorik gabe
irentsi ditzakete.

Hain eder, hain liluragarri dira, eta
era berean, pozoitsu. Izan ere, Barraski-
loen eta lapen ahaideak izaki (molusku
gasteropodoak), animalia hauek duela
milioika urte galdu zuten haien masko-
rra. Babes modura ordea, larruazal lodi
eta urratzaileaz gain, beren burua de-
fendatzeko hutsegiten ez dien pozoia
jariatzen dute, azaleko guruinen bidez.

Nudibrankioen gorputz biluzietan
ageri diren orbanak, marrak nahiz oihal
garestietako pikartadurak ikusiko ditu-
gu, mihise balira bezala. Kolore biziak
harrapakariak ohartaraziko dituzte:
"Erne! Ez zaik ni irensterik komeni".
Itsas hondoko moda desfilerik dotoree-
na harrapakariei zuzenduta dago, beraz.
Eta ez, ordea, haien artean erakartze-
ko. Izan ere, nudibrankioak itsuak dira.
Haien begi ñimiñoek ozta-ozta bereiz-
ten dute argia ilunpetan. Horren ordez,
errinoforo izeneko gehigarri sentsorial
batzuk dituzte buru gainean: bi adar-
txo, untxi-belarriak bailiran, zapore eta



JOXERRA AHHARTZA / WIKIMEDIA COMMONS

usainak hautemateko, janaria lortzeko,
eta baita ugaltzeko espezie bereko kidea
bilatzeko ere (feromonak antzemateko).

ITSAS-BARE KANTAURIARRA *Felimare cantabrica*

TALDEA: Moluskuia /
Gasteropodoa / Nudibrankioa.

NEURRIA: 3-5 cm.

NON BIZI DA? Kantauri itsasoan,
sakonera txikiko itsas hondo
hondartsuetan eta baita
kilometro bateko sakonera ere.

ZER JATEN DU? *Dysidea fragilis*
belakiaz elikatzen da.

ERNALKETA: Hermafroditak dira
baina bikoteka ernaltzen dira.
Errunaldia espiralean egiten dute,
kolore zuriko zinta batean. Larbak
zazpi egunen buruan jaiotzen
dira, 22 °Cko tenperaturan.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.



NAGORE ZALDIA MENDIZABAL
ARANZADIKO KIDEA

Izan ere, hermafroditak diren arren,
bi ale elkartu behar dira ernalketa gerta
dadin. Bi sexuak gorputz berean izanda
ere, nahiago dute binaka, eta ez baka-
rrik. Errunaldian espezie bakoitzak sor-
tzen duen arrautza-eskultura artistikoa
nortasun ikur ere bada.

Gurean, ezagunena *Felimare cantabri-
ca* dugu; izenak adierazten duen bezala,
Kantauri itsasoan ohikoa den espeziea da,
eta gure kostaldean urpekaritzan dihardu-
tenen laguna. Hamaika zentimetro izatera
heldu daitekeen arren, arruntena 3 eta 5
cm arteko aleak aurkitzea da. Bizkarral-
dean kolore urdin deigarria du, bi marra
hori distiratsurekin: bata errinoforoetan
hasi eta gorputzaren erdi-erditik, luze-
ra osoa zeharkatzen duena; bestea aldiz,
gorputzaren ertza inguratzen duena. Buru
gainean tatuaje modukoa du, bi errino-
foroen artean, espeziea bereizteko balio
digun aingura edo T formakoa. Brankiak
urdin ilunak dira, haien haritz-hosto for-
marekin azalera handitu eta, hala, arnas-
keta funtzioa ezin hobeto betetzeko.

Gure itsas bare txikia inspirazio iturri
izango zen Jean Paul Gaultierren pasare-
letarako. Nondik bestela, bere marinela-
ren zapi ikonikoa? ●

ELKARREN BEHARRA BIZITZEKO



JAKOBA ERREKONDO

JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Lagun txiletar batek bere herriko istorio bat kontatu dit, eta ahoa bete inplante utzi nau. Han “quin-tral” esaten dioten landare batena da, *Tristerix corimbosus*. Txile eta Argentina hegoaldeko baso epeletan bizi da, eta gure lurralde epeletan hazten den mihuraren (*Viscum album*) tankerakoa da landarea, oso tankerakoa. Biak bizkarroiak edo parasitoak dira, baina tamainan: berde kolorea dute eta horrek adierazten du fotosintesia behinik egiten dutela; landare ostata-tzaileari izerdia lapurtzen diote, baina izerdi hori fotosintez eraldatu eta izerdi landu elikagarria beraiek bihurtzen dute; horrexegatik “hemiparaso” esaten zaie, erdi-bizkarroi alegia. Biek ostatatzaile baten adarretan bizi beste aukerarik ez dute. Biek kokor jangarriak dituzte, ez azkurritsuak, baina pozoitsuak behintzat ez. Biak genealogikoki *Lorantaceae* familiakotzat genituen lehen; kintralak hor jarraitzen du baina orain mihura *Santalaceae* familiakotzat dugu.

Genetikak nahi duena esango du, baina niretzako herengusuak dira. Bere kastari etorkizuna emateko trikimailu ber-berak darabiltzate. Ale kokor horiek hegaztiei eskaintzen dizkiete; mami bigun jangarri batean bildutako hazi gogor bat. Ez da mami bereziki gozoa, ez da gerezi (*Prunus avium*) edo gurbe (*Sorbus domestica*); ez du energiari edo azukrerik xahutzen hegaztiak erakartzeko. Nahikoa du hegaztiak beste jaki aukera urria dutenean fruituak ontzea: neguan. Gosearen taktika: kaskarxeagoa ere ona. Neguak, baita ere, bistaratu egiten du; landarez jositako paisaia neguak soilte ia orokorra dakar geurean eta



Mihura makaletan.

mihura hor azaltzen da harro punttuarekin, berde distiratsu trinko, urrutitik ikusteko moduan.

Bi landareek alearen mamia likaz janzten dute, hegazia elikatzea datorenean alearen bihotzeko hazia mokoan itsatsi dakion eta hura kentzeko ahaleginean adarrenean kontra mokoa igurtziz hazia adarrenean erantsita gera dadin, gero bertan sustraiak sartu eta itsasteko.

Hegaztiak mihura behar dute, neguko bazka erreserba. Eta mihurak hegazia behar du, bere hazi banatzaile. Honelako kate txiki osagarri elikatzen da ekosistema bioanitz aberatsa; bukatzen ez den espiral baten antzera. Bizkarroia dela iruditzen zaigun landareak ere berea ematen dio ekosiste-

mari, beharrezkoa da. Parasitoak, bai, bizkarroiak, inguruko bizkar bizi direnak ere beharrezkoak dira ekosistemak behar bezala bizi izateko bada. Txilen bada Aramayo, baina gure Aramaiokoa da Markel Arriolabengoa Martiarena baso ingeniaria eta ikargarritzko bideo ederra egin du naturaren konplexutasunari buruz: “*Konplexutasuna*”; hura ikusi eta bururatu zait idatzi dudana: mila esker.

Guk elkarbizitza horiek ulertu beharrean nolakotasun adjektibo itsusi us-tekoak erabiltzen ditugu landareekin: belar txar, belar gaizto, barrabas, bizkarroi, inbaditzaile eta abar. Eta eman hartu horretatik at bizi daitekeela pentsatzen duen bizidunak jai dauka. Jai dugu, hemen eta Txilen. ●

TREBATU ELKARTEA

LEHEN SEKTOREKO ERRELEBOA BULTZATZEKO EGITASMOA GIPUZKOAN



GARAZI ZABALETA

Urteak daramatza martxan Ipar Euskal Herrian Trebatu elkarteak, laborantzan proiektua abiatu nahi duten pertsonen aurrez trebatzeko aukera izan dezaten. Ipar Euskal Herriko proiektua eredutzat hartuta eta ideia berari tiraka, Gipuzkoan ere izen bereko elkarteak sortu dute aurten. “Gipuzkoako ekoizpenetako titularren ehuneko handi bat jubilatzeke adinean edo hortik gertu daude, eta ikusten zen ez zela nahikoa etxeko erreleboarekin”, adierazi du Telmo Gartzia Arana Gipuzkoako Trebatuko koordinatzaileak. Errelebo faltari aterabidea ematea eta nekazaritzako eta abeltzaintzako proiektuak bizirik mantentzea da elkartearen helburu nagusia.

PROIEKTU PILOTUA

2024ko uda bukaeran abiatu dute Trebatu proiektua, Landaola Gipuzkoako landa garapen elkartearen federazioak bultzatuta eta Lurgintzak, Abelurrek, Elikak, Hazik, Etorlurrek, Fraisorok, Lanbidek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta. “Trebatze guneak edo ustialekuak eta trebalariak edo pertsona ekintzaileak elkartu ditugu, guztira, zazpi bikote osatu dira”, azaldu du Gartzia. Lehen sektoreko hainbat alorretako proiektuak ari dira parte hartzen Trebatun: haragitarako behiak, esnetarakoak, baratze gintza proiektuak eta lore-hazkuntzakoak dituztenak. Proiektu horietako bakoitzean, lanbide horretan aritu nahi duen pertsona bana ari da trebatzen, bi urteko zikloan.

“Askotan, hutsetik hastea baino aukera hobea da probatzen hastea, ikusteko ea benetan gustuko duen jarduera hori, funtzionatzen duen...”, azaldu du koordinatzaileak. Onurak bi aldeentzat dira, lehen sektoreko proiektu asko baitaude erreleboa emateko prest, baina errelebo



hori nork hartu ez dutenak. Gipuzkoaren kasuan, ustiategien %78 50 urtetik gorako pertsonen kudeatzen dituztela kalkulatu dute, beraz, agerikoa da familiako eta familiarik kanpoko erreleboa errazteko bideak landu behar direla etorkizun hurbilera begira.

PRAKTIKA FORMAZIOAREKIN UZTARTUTA

Trebalari bezala egitasmoan parte hartzeko eskakizun apartekorik ez dagoela azaldu du Gartzia: DBHko titulua eskatzen dute eta 52 urte baino gutxiago edukitzea. “Bi urteko ziklo horretan trebalariak ustiategietako lanaz gain formazio atal zabal bat ere jasotzen dute, nekazaritzako alorraz gain kudeaketa ekonomikoa, juridikoa eta beste hainbat kontu lantzeko”, dio. Trebatze

guneen kasuan, hainbat ustiategi mota daude proiektuan, ekoizpenari eta ereduari begira. Horietako asko dira, dena den, erretiroa hartzeko zorian edo proiektua uzteketan direnak. “Baina, badira bestelakoak ere, esaterako, dibertsifikatu nahi duten ustiategiak eta kide berriren bat hartu dezaketenenak”, gehitu du.

Ustiategiez gain, Trebatuk berak ere baditu zenbait lursail eta ekipamendu eskuragarri, eta hor ere ari dira trebalariak haien proiektuak garatzen. “Orain arteko bidearen balorazio oso positiboa egiten dugu, badirudi parte hartzaileak gustura ari direla, eta interesa eta prestutasuna ikusten ari gara. Beraz, etorkizunera begira proiektua iraunkortzea eta hark aurrera egitea espero dugu”, amaitu du. ●

JOAN TARTAS

‘ONTSA HILTZEKO BIDEA’

Apez neurotikoak pistolarekin eskribatua

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Joan Tartas (Sohüta, 1610 - heriotza data ezezaguna) ez da gure letren historiako idazle famatuenerarik eta, hala ere, ediren dugu gauza onik “pieza mendre” honetan, zeinaren titulua, onar dezagun hasieratik, ez den segur aski mundu honetan paraturiko izenburuen artean komertzialena. Haren sujetak ere ez gaitu alegantziaz eta bozkarioz gainezkatuko –Tartasek, azken finean, liburu osoa iragaten baitu oroitaraziz hilko garela, eta pentsamendu horren arabera obratuz, eta ez beste inola, garela salbatuko-. Hori gutxi ez eta, Axularren aldean, Tartasen idazkera ere ez da hain distirant. Baina dugun medaila beste alderat itzuli. Dugun adierazi, eta tinko bai tinko baieztatu, aurretik esandako guztien despit, ohoratu beharreko liburu delako *Ontsa hiltzeko bidea* (1666): gaur egungo joera askoren aurrekari, tarteka

fantastiko, aldian behin filosofiko-existentzialista, plazenki irakurtzen diren istorioz mukurua, sorpresa-kutxa bat duzu, liburu debot baten pean desgisaturik.

Eta mintza gaitezen, beste deus baino lehen, Tartas autoreaz, haren subjektibotasun net modernoaz, zeina kausitzen baitugu klarki liburu honetan adierazten dituen zalantza ugarietan, hain begi-bistakoak ezen, hiru mende eta erdi geroagoko idazle neurotikoaren antzeko bihurtzen baitu etenik gabeko ezbaian ibili behar horrek. Hasi eta berehala gonbidatzen du irakurlea liburuaz uztera –“Ene tribaillu aphürrak eztü meritatzen zük phena har dezazun haren irakhurtzeko”-, zenbaitetan bere burua zigorkatzeko puntuan dakusagu –“... errazü mündü orori, afrontür bat nizala gizagaixto bat nizala, aphez gaixto bat nizala eta ene librütto honenek, eta nik merexi dügüla sü handi

batetan bizirik erra gitian”-, beste batzuetan txapa handiegia eskribatu ez ote duen hasten zaizu duda-mudan –“Neure adiskidia kapitülü hau luzezko izan da”-, eta kasik amaieraraino ez da segur esku artean duen proiektuaz –“... beldür niz enuiatü ere bazirela, ene sobera lüza izanez, süjet triste baten gaiñian”-.

Auto-boikot horien despit finitu zuen obra hau, beraz, Arüeko erreto-reak. Hasi berriz, amets bati jarraiki hasi zuen: “Neure adeskidia, igaren üdan egün batez nangoela zühaintze baten itzalbian neure orenen erraiten ninzala, loak hartürrik, egin dütt neure loan aments handi bat eta misterios bat, idüritzen zautan neure amentsian, ikhusten niala gizon eta emazte tropela bat goiti zelürat igaiten, eta bertze tropela bat oraino handiagorik beheiti ifernürat joaiten eta erorten, jende hek kontsideratürrik batziak gora, bertziak behera

joaiten zirela, oihü egin düt, eta heia-gora orori, zer zen kausa, edo zergatik, batziak goiti eta bertziak beheiti joaiten ziren...". Tira, bai, amets apokaliptiko bat. Baina ametsa, azken finean.

Neurosia, munduaren akabera... Goititu behar dugu animoa pixka bat. Dugun liburuaren idazkera kontuan har. Irakurtzaile zoliak, aurreko paragrafoko aipuaren puntuazionea ikusirik, sumatuko zuen Tartasen beste bereizgarri bat, nola den zinemako plano-sekuentzien tankerako esaldiak eskribatzea bata bestearen atzetik, halako moldez non *Ontsa hiltzeko bidea*-n esaldi bat "neure adiskidea" esanez hasten bada, egon behar baituzu presto, eta bijilant, hitzen katea hemen ondoan abiatzen den arren, ez baituzu jakinen, azkenera iritsi arte, noraino eramanen zaituen Tartasen luma, ados, ez Axularrena bezain zehatzak, Jean-Louis Davantek zioen bezala, korritzera utzitako lumak, zeinak, izaera baldres hori medio, ez daukan euskal idazle klasikoan parnasoa leku nabarmenik, baina eskribatzen duen moldeari erreparaturik, lot daitekeen 1960-1970eko euskal modernismoaren zenbait tontorrekin, nola diren Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*, Patri Urkizuren *Sekulorun sekulotan* edo Koldo Izagirrereren *Zergatik bai*, eta niri behintzat, gogoia pizten didan gure literaturako testu espontaneoan, eskribatuak baino jariatuak izan diren testuen genealogia bati ekiteko.


Esanen dute, hala ere, Tartasen liburu hau, gaur egundik begiratuta, literatura ez dela; baina nik esanen diet Tartasentzat liburu hau soldadu bat dela -ez mailu, ez aizkora: soldadu-, hori baita *Ontsa hiltzeko bidea*-ren beste gauzetako bat, erreferentzia belikoz josita dagoela. Garaia ere

halakoxea Zuberoan, XVII. mende hartan: bateko Matalazen matxina-da, besteko protestanteen aurkako jazarpena, ahaztu gabe agoten eta buhameen aurkakoa, guztia eraldaketa ekonomiko sakonen erdian. Ez zen pataskarik falta. Eta saltsa horretan, idazlea. Egin zituenez eta ez zituenez zehatz gauza handirik ez dakigu. Kontu bat segurta daiteke: "Moneineko Jaun Markisari" dedikatu ziola liburua, "heresiaren, eta hügenoten kontre" jardundakoei gorazarre egiten diela gomendiozko lettran. Ez zela zeru goienetan bizi gure Tartas, alegia, ezpada garaiko lohi hartan ondo sartuta. Akaso -Txomin Peillenen arabera-, gerra santurako

liburu-soldadu honetaz erditu aitzin, bera ere soldadu izan zen. Beharbada -Jean-Baptiste Orpustanen hipotesia-, katolizismo borrokalari hori erakutsiz, sineste gogor horren moienez, Tartasek garbitu nahi izan zituen bere arbasoen -Leizarraga kalbinistaren laguntzaile aritu zen Sanz-Tartas hura, eta abar- bekatu erreformistak, gauza jakina baita, lehen bezala orain, konbertsoak izan ohi direla fededun suharrenak.

Nolanahi den, soldadu giristino horren ezpata-kolpuak eta arkabuztiroak bihurtu dira, denborarekin, liburu honetako alderdirik mendreena, non eta ez garen ahalegintzen horretan ere Arüeko apezaren beste ezaugarri moderno bat kausitzen, senidetuko lukeena egungo idazle askok beren buruari ezarri dioten zeregin pertsuasiboarekin. Egia da, horrela begiratuta, mutatis mutandis, oso antzekoak direla Tartas erretorea eta nobedadeen apaletako pulpitutik ari diren zenbait predikari, edukiak baitira kanbiatzen, baina fedearen premiak du irauten, zutik.

Erreka horretan behera jaitsi ordez, behar dugu itzuli gibeletat, *Ontsa hiltzeko bidea*-n puskaz interesgarriagoa den azken kontu baten aipatzeko. Tartas istorio-kontalari hauta zela, alegia, eta liburu honetan laburtuta agertzen diren zenbait ipuin eta mito eskribatzen errekreazione handiagoa hartu izan balu -adibidez, ilea hildakoen errautsez orrazten zuen Mazedoniako andere handiarena; kontrapozoi gehiegi hartzen zuen erregearena; edo Esoporen fabuletatik harturikoak, oro har-, agian, agian, orduan euskal literaturak hementxe edukiko zuela ondoko mendeetan genero narratiboa hobeki garatzeko oinarriak. Ai, Tartas, jakin bahu hire fedek zenbat damnatu zian hire obra! ●



Lehen edizioko liburuaren azala. Biarnon inprimatua, Okzitania, 1666an.

HARRY SMITH

AEBetako artea itxuraldatu zuen zinemagilea, folklorista eta magoa


Artista polifazetikoa izan zen Harry Smith (1923-1991). Inkonformista erradikala ere bai, bere biografia askotan nabarmentzen denez. Instituzio eta galeristetatik urrun, eskale baten itxura izan zuen urte luzez. Berari buruzko azken liburua, *Cosmic Scholar: The Life and Times of Harry Smith* deiturikoa, John Szwed-ek idatzia, 2023ko liburu onenen artean kokatu zuten *New Yorker* eta *The New York Times* hedabide prestigiotsuek.

 JULEN AZPITARTE

A bangoardia amerikarreko zinemaren aitajaun Jonas Mekas-ek zera esan zuen: "Urteetan, Harry Smith kondaira beltz eta beldurgarria izan da, baita zurrumurru bitxiaren iturri ere. Batzuek planeta hau aspaldi utzi zuela ere esan zuten; mendebaldeko munduko azken alkimista, azken aztia".

Jazz eta folk zale grinatsu John Szwed-ek 26 urte zituen *Village Voice* argitalpean Jonas Mekasen hitz horiek irakurri zituenean. Szwedek ordurako bazuen Harry Smithen berri, musika irakasleen bitartez, baina aldizkari hartan leitutako adierazpenek sua hedatu zuten bere baitan. Egun, Yale Unibertsitateko irakasle ez ezik, Szwed biografo entzutetsua ere bada; besteak beste, Alan Lomax etnomusikologoaren eta Miles Davis, Billie Holiday eta Sun Ra jazz musikarien bizitzaren kontakizun zehatzak bildu ditu bere liburuetan. Halaber, *Cosmic Scholar: The Life and Times of Harry Smith* (Aritu Kosmikoa: Harry Smithen bizitza eta garaiak) biografia plazaratu zuen 2023ko irailean; hain justu, Smithen jaiotzaren 100. urteurrenean.

Sun Ra jazz musikariari buruzko liburua *Space Is The Place: The Lives And Times Of Sun Ra* (Espazioa da lekua: Sun Raren bizitzak eta garaiak) eta Harry



Smith artistaren ingurukoa saldoka saldu dira, eta bi artistenganako iguripen eta jakingura berpiztu du. Szwedi zera irakurri diogu: "Badira antzekotasun batzuk Sun Raren eta Harry Smithen artean: biak ziren bakarrak, asko bizi izan ziren, eta mitologia bat sortu zuten beren baitan. Biak ia ezezagunak izan ziren

beren ibilbideko zati handi batean. Beren bizitzak eman zituzten, eta sarritan beren bizitzak arriskatu zituzten, seguru asko aitortza gutxi jasoko zuela zekiten arteagatik".

Biak ezagun egin badira ere, Smithi buruzkoa nabarmendu da gehiago.

NOR ZEN HARRY SMITH?

Margolaria, zinemagilea, folklorista, musikologoa, antropologoa, *beat* poeta, jazz-aditua, magoa, alkimista... eta, besteren artean, bitxikeria gisa, bildumagilea ere izan zen Smith: 30.000 Ukrainako Pazko arrautza baino gehiago bildu zituen.

Inkonformista erradikala izan zen. Bere jardun osoa instituzioen, galeristen eta kapitalismoaren apatxetatik urrun garatu zuen, eta, ondorioz, sosik gabe bizi izan zen, eskale baten itxura eta mannerak erakusten zituela. Izan ere, nortasun poliedriko eta gatazkatsu horren inguruan sortutako enigma handienetakoa da nola lortu zuen 36 urtez New Yorken bizitzea diru apurrik gabe. Bere ekoizpenean pinturak, filmak, poemak, musika eta soinu-grabazioak biltzen badira ere, objektu esanguratsuen bilduma zabalak ere badira, hala nola aurkitutako soka-irudiak eta paperezko hegazkinak.

Smithen lanik ezagunena, ezberrik gabe, 1920ko eta 1930eko hamarkade-

tako folk, blues, gospel eta antzeko estilo zaharren doinuak jasotzen dituen *Anthology of American Folk Music* (Folk musika estatubatuarren antologia) izeneko bilduma da, zeina bereziki kultuzko bihurtu den musikari eta entzule askoren artean, 1952an lehen aldiz argitaratu zenetik.

Szwedek idatzitako biografian jasotzen denez, “jende gehienak grabazio zahar horien bildumagatik ezagutzen zuen (Smith), folkaren eta rockaren ibilbidea aldatu baitzuen”. Greil Marcus musika-kritikari prestigiotsuaren aburuz, AEBetako bestelako historia itzaltsuago eta konplexuago baterako sarbidea da Smith: “Amerika bitxia, zaharra”.

Folkways Records zigiluak plazaratutako konpilazioak sei LPtan jasotako 84 herri-doinu biltzen ditu, zeinak hiru kategoriatan antolatu zituen Smithek: musika soziala, baladak eta abestiak. “(Smithek) diskoen edukia ulertzen zuen. Folk musikarekin zuten harremana ezagutzen zuen, literatura ingelesarekin zuten harremana, eta beren harremana munduarekin”, azaldu zuen Moe Asch Folkways diskoetxearen jabeetako batek 1972an. Smithena, aditu baten lana izan ez ezik, adimen obsesibo eta aparta baten emaitza ere bada, eta bere itzala hain da handia, bilduma hori kanon historikotzat jotzen baita, besteak beste, Bob Dylan, Woodie Guthrie eta Joan Baez folk musikarientzat biblia bihurtzeraino 1960ko urteetan. Horrekin batera, grabazio horiek mugarri bat osatu zuten AEBetako gazteek eduki politikoak zituzten doinuak entzuten has zitezten. Hainbat musikari eta banda ere izan zituen lagun Smithek, tartean, Dylan bera, Patti Smith, Leonard Cohen, The Fugs eta Jefferson Airplane. Makina bat musikari garai-kidek ere adierazi izan dute miresten dutela Smith: besteak beste, Nick Cavek, Sonic Youthek, Beckek eta Wilcok.

ARGIAK ETA ILUNAK

Antologian bildutako diskoen azalek, halaber, bildumagilearen nortasun arantzadunaren bestelako alde ilunago bat ere azaleratzen

dute; hain zuzen, ezagutza itzaltsuekiko agertu zuen jakin-nahi kartsua. Hala, musikaren alde magikoa nabarmentze aldera-edo, disko-azal bakoitza kolore desberdin batean inprimatuta zegoen, eta zeruko monokordio baten marrazki bat erakusten zuen –soka bakarreko dultzimel edo tinpano bat, Jainkoaren eskuak tonuan jarria–, 1618ko Robert Fludd alkimistaren *De Música Mundana* liburutik hartua.


Zientzia ilunekiko ageriko jakin-gosea gorabehera, Smithen jakinduria eta jarduna nahiko lurtarra izan ez ezik, askotarikoa ere izan zen. Haatik, pertsonaia xelebreak jorratutako diziplinak aletzea ezinezkoa izanagatik ere, bere lan-eremu eta obrak aipatzea posible da, besteak beste, John Szwedek bere biografian egindako lan eskergeri esker. Halere, Smithen obrarik handiena argazkietan jaso da, lan asko artistak berak suntsitu baitzituen, drogek eta alkoholak horditutako aldarre badaezpadakoa tarteko, edota bere lanak ganorarik gabe saldu zituelako, sarritan bere logelaren alokairua ordaintzeko asmoz.

Hala, pinturari dagokionez, Kabalako

eta AEBetako Ipar-mendebaldeko Kostako natiboen elementuak ekarri zituen bere margolanetara, surrealismoari ekarpena egiteko. Horrekin batera, jazz diskoak eta zuzenekoak pinturara eram zituen; Dizzy Gillespie, Thelonious Monk eta abarren inprobisazioetan oinarritutako lanak margotu zituen. AEBetako natiboen kultura, filosofia eta sinesmenei buruzko hainbat ikerketa egin zituen: nerabea zela, harreman estuak egin zituen Lummi tribu hertsiarrekin, beren ohiturak jasotzeko asmoz, tartean, kantuak, dantzak eta erritualak, 1940ko urteetan.


1950eko urteetan New Yorken finkatu eta mistizismoan murgildu zen, nagusiki Kabalan eta Aleister Crowleyren lanetan. Era berean, animazio filmetan sakondu zuen, esaterako, *Film No. 12: Heaven and Earth Magic (1957-62)* filma: katalogoen ebakinekin osatutako zuri-beltzeko lana da, zeinak sei orduko iraupena behar omen zuen. Baina egun orubete baino ez dago ikusgai, besteak beste, Youtuben. Szwed biografoaren aburuz, animazio-lan horien eragina nabarmena da Terry Gilliam zinegile britaniararen filmografian.

Horiek horrela, begi bistakoa da sortzaile liluragarri eta misteriotso honen bizitza zein obra orriotara ekartzea eginkizun antzua dela; halere, *Cosmic Scholar* liburuan jasotzen diren Andrew Nortonen zinemagile esperimentalaren hitzez baliatuta, irakurleak artista eta magoaren potreta nahikoa fidagarria irudika dezake: “Elder Eddasen eta Washington estatuko kostaldeko Bella Coola tribuko maskara zeremonialen arteko harremanaz hitz egin zidan, eta maskara horiek nola lotzen ziren Seminola ehunekin eta Heinrich Biberren musikarekin eta J.S. Bachen partiturekin eta Robert Desnoseren poesiarekin. Sekulako emanaldia izan zen... Garunetik gorantz txinpartak hegan ikus zitezkeen. Hasieran pentsatu nuen hori guztia bikaina baina zentzugabea zela, izan ere, ez nekien zertaz ari zen, baina gero adiago entzun nuen, eta onargarria eta are logikoa iruditzen hasi zitzaidan...”. ●





Hitz geqidunak

GIZONEZKO IZENA MADARIKAZIO	PERTSO-NAIAREN ABIZENA MUSIKA NOTA	... OTOAN, EZUSTEAN			MUSIKA MOTA KONTAPOSIA	BURDINAZKO LOKARRIA LOTSA SENTITU	... GORATU, AZPIKOZ GORATU EUSKALKI
AZTERKETA MOTA NANOTESLA							
	HOLMIOA EDONOLA		TOKI HORRETAN ONTZI ESTUA ETA ARINA	LAGATZEAK ZUBEROAKO HERRIXKA			
... EGIN, ADISKIDETU ERORI ADITZAREN INFINITIBOA					EGONGELA, ARETOA ZUBEROAKO UDALERRIA		
		JANTZIA IZUGARRIA, APARTEKOA				UKAPEN IRUDIA ITZULTZEN DU	
IKASTETXE	ADINA, BEZAINBAT KEBIDETAKO ZIKINKERIA		ALABAINA, IZAN ERE LETXUGAREN BARRUALDEA				IPURTZULOA
					NAHI, ZALETASUN GATZ GEHEGI DUENA		
NOREN ATZIZKIA ADAKERA		GUARDIA PERTSO-NAIAREN IZENA				ALAITASUN TOKA, DU	
			KE BAFADA KRIPTONA				KILOA KILOMETROA
KONTSEILU KEZKARAZI				GOGORKI AZKEN LETRA			
						SEHASKA	

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

9	1			3	6	5		
				8	1		2	
6	8	2		9		7		1
	5	3	1		7		8	
7	2	1	9					
	9		3	5				
		9			5			
		5	4					2
3	7					1		4

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Bukatu, agortu.
2. ... eta arte, bitartean.
3. Itoarazi.
4. Emeen ugatza.
5. Ukamenak.

EBAZPENAK

1. AHITU
2. HARIK
3. IRATO
4. TITIA
5. UKOAK

4	5	1	6	2	9	8	3	7	8
1	6	5	4	7	3	8	9	2	3
2	4	9	8	1	5	6	7	3	2
8	9	6	3	5	2	4	1	7	1
7	2	1	6	4	8	3	6	5	5
4	5	3	1	6	7	2	8	9	6
6	8	2	5	9	4	7	3	1	1
5	3	4	7	8	1	9	2	6	6
8	1	7	2	3	6	5	4	4	8

V	A	M	U	K	I	Z	A	R	V	N	I	R	I	G
K	I	L	K	U	Z	V	A	L	O	H	A	V	A	
K	D	L	D	E	A	K	E	J	E	A	D	V	A	
Z	O	P	O	G	N	I	V	Z	N	E				
T	U	S	T	G	V	L	O	T	S	V	I	K	A	I
Z	E	T	I	K	V	H	N	I	L	V	A	L		
Z	E	V	A	P	O	P	A	N	A	R	O	R	O	
V	L	A	S	A	K	O	A	K	Z	E	N	O		
K	E	A	T	Z	U	H	O	H						
N	I	N	O	Z			T	S	T					
V	A	L	A	B	A	L	O	V	A	O	R	I	R	B
H	K													



Segi dezala akelarre antifaxistak

 UXUE GUTIERREZ LORENZO  GAIZKA PEÑAFIEL

Urtero jantzen da festa giroz Bilbo abenduaren 21ean. Sagardoa eta taloa protagonista, San Tomas eguneko azoka eguna da. Aurten, gainera, larunbata. Hori gutxi balitz, akontezimendu kultural garrantzitsua hartu du hiriak: Fermin Muguruzaren 40. urteurreneko birako bigarren kontzertua (Miarritzeko Atabalen eman zuen lehena).

Azoka egunari amaiera borobila emateko asmoz batu gara 8.000 pertsona Bilbo Arenan. Zirrara eta gogo nabari dira giroan: “Non dago *G atea?*”, “Ez zaituztet ikusten, ni hemen nago”, “A ze bueltatzarra eman dudana!”. Ohiko komeriak eta urduritasunak Muguruza komandantea ikusteko esperoan.

Puntual baino puntualago ekin dio kontzertuari. *Maputxe* hautatu du zuzeneko abiatzeko eta *Urrun* abestiarekin agertu da oholtzara: “Has dadila akelarre antifaxista”. Hamar urte eta erdi geroago zapaldu du oholtzara Euskal Herriko musikari esanguratsuenetako batek. Bira mundiala iragarrita, 40 urteko ibilbidearen errepaso egitea du asmo kantariak. Ez du erronka makala.

Errepasorako, tentuz hautatu ditu oholtzakideak Muguruzak: Gloria Maulet baterian, Gerard Charlar 58 perkusioetan eta Victor Navarrete baxuan. Bestetik, “punk rokaren haizeak”: Jon Elizalde, Aritz Lonbidek eta Igor Ruiz Fino. Lehen lerroan, berriz, Xabi Solano, Lide Hernando eta Matah.

Pistan jendea dantzarako prest, eta harmailtan asko eta asko zutik. Gargardoa eta kalimotxo barra-barra eta argazki kurioso: 40 urte inguruko gazte asko eta bizi izan ez genuena ikusteko ezusteko aukerarekin zirrarratsu gauden beste gazte asko.

Lau hamarkadako ibilia ia hiru orduko saio bilakatzeko formula aurkeztu du musikariak. Denetik pixka bat, eta faltan, nik behintzat, gutxi: *Big Beñat* igaro da Korrikan, Kortatu-k argi zuen que... *Hay algo aqui que va mal* eta beti egon direla *En la línea de frente*. Nazioarteko borrokei keinu: *Yalah, Yalah, Ramallah!* eta *Nicaragua Sandinista*. Jai giro aldarrikatzailea beti presente: *Dub Manifest, Gora herria, Kolore*

FERMIN MUGURUZA
40. URTEURRENA

NOIZ: abenduaren 21ean.

NON: Bilbo Arenan.

biziak... Orotara, irakurri dudanez, 35 abesti.

Eta, nostalgiari tokia eta merezi duen aitortza eginez, kontzertu osoan oholtzakide izan dituen musikariez gain, kolaboratzaile bereziak gonbidatu ditu Muguruzak. Eta guk bizitzea espero ez genuen akontezimenduen zerrendara beste bat gehitu dugu. Kaki Arkarazo, Mikel Anestesia eta Mikel Abrego txalo zaparrada artean hartu ditu publikoak. Eta uneoro nonahi agertu da, nola ez, Iñigo Muguruza anai eta taldekidea.

Kontzertuaren bukaera aldera igo da oholtzara Itziar Ituño “lehendakaria”. Lehertu da Kortatu, hau da *Sarri Sarri*. Eta, Muguruzak ondo esan zuen bezala: “*Sarri Sarri*-ren ostean badirudi ezin dela ezer kantatu”. Edo bai. Gaueko azken aldarria egin du musikariak: *Hator, hator* euskal presoen omenez.

Bilboko saio bikoitza atzean utzita, Euskal Herrian beste bi hiri bisitatuko ditu Muguruzak: ekainean Donostian bilduko dira zaleak eta azken izerdia Iruñean botako du urrian. Bitartean, segi dezala akelarre antifaxistak. ●



LIBURUA

Hondamendi zahar hura



NPR

**FUN HOME.
FAMILIA-ISTORIO
TRAGIKOMIKO BAT**
ALISON BECHDEL
TXALAPARTA, 2024

BESTIAK LIBURUTEGIA

Fun Home. Familia-istorio tragikomiko bat (2006) nobela grafikoa-ren lehen argitalpenarekin egin zen ezaguna Alison Bechdel komikilaria, nahiz eta berak *Dykes to watch out for* tira komikoan hainbat argitalpenetan parte hartu zuen 1990eko hamarkadan. Bitxikeria bat: tira horietako batean agertu zen lehenengoz gaur egun hain ezaguna egiten zaigun Bechdelen Testa. Gaurkoan, beraz, *Fun Home* komikiari helduko diogu, Danele Sarriugartek Txalapartarekin euskarara ekarritakoa 2024an.

Guri, komikizale gisa, Bechdelen estilo grafikoak jo digu begira. Liburuan, bariatorik gabe perpendikularki an-

tolatutako bineta karratuak erabiltzen ditu, urdin hotz batez soilik itzalezatuta. Marrazketa-estilo horrek familiarekin daukan harremanaz hitz egiten digu. Hain justu, tonu hotz eta itxiek umetako bizilekua izandako hileta-etxean murgiltzen gaitu erabat.

Konpainia, ispilu eta giltza gisa erabiltzen du Bechdelek literatura. Izan ere, bizitzako une bakoitzean bidelagun izandako liburuen pasarteekin eta pertsonaiekin elkarloturik kontatzen ditu bere oroitzapenak. Kontakizun autobiografiko honek agerian uzten du familia amerikar heteronormatibo perfektuaren irudia sostengatzen duen indarkeria eta hauskortasuna –“hondamendi zahar

hura”-. Kontrastean, Bechdelek familia-eredu horri kontra egiten dioten erreferentziak idazle eta liburu bolleroen mapa bat marrazten du, nobela grafikoe-tan batere ohikoa ez dena.

Harritzekoa da klasiko hau argitaratu zenetik hamazortzi urtera heldu zaigula euskarara. Itxaronaldiak islatzen du itzulpengintza ez dela soilik testu bat hizkuntza batetik bestera ekartzea. Erabaki politikoa da. Zer testu itzultzen den hautatzean, herri batek zer irakurriko duen erabakitzen da. Antzera jarduten dugu guk liburutegian. Liburutegi batek ere eragin diezaiokie irakurtzen denari. Horregatik, gurean, herri mugimenduen begiradatik osatzen ari gara kolekzioa. ●



MUSIKA

Bizitza erritua



IKER BARANDIARAN

Arrasateko Perlata taldeak lan berria kaleratu du. Hainbat disko ditu bizkarrean, eta azkeneko lana bere jaioterriko punk, *Oi!* eta rockaren zubi-lana egindako Jesusi Etxeberria maistra errepikaezinaren omenezko dokumentala izan zen, maitasun eta aitortza ariketa. Orain, berriro ere fokua musikan jarrita, hamar kantuz osatutako disko berria erditu dute, eta harekin batera hitzak, hausnarketak eta hainbat tatuatzailek marraztutakoak bazten dituen fanzine-liburuxka askea.

Agerikoa da fase berri batean dagoela laukotea. Aspaldiko partez batera jotzaile egonkorra lortu dute, talde izaeran erabat barneratu eta erritmo trinkoa gehitu diona. Inoiz baino gehiago jotze-

ko aukera dauka taldeak, baina neurria hartzen dute argi dutelako noiz, non eta zertarako jo. Ekintza politikoan sine-tsita, laukotearen hitzek bidea ematen dute serio eta aske hausnartzeko, elkar zaintzeko eta, azken finean, bizitzeko. Tontakeriak soberan daude bizitzan eta, ondorioz, talde honetan ere bai.

Iruñeko Sound Of Syrens-en grabatu dituzte kantuak, bakoitzari behar zuen tonua emanda, eta bilatu dute harmonia eta musa. *Un gramo* zuzena da erabat, amorratua eta azkarra, eta batera zizelkatuta, melodian badu Biznaga-ren arrastoa. *Vino y jazmín* indartsuagoa da, ahots erregistro desberdin eta ñabarduraz aberastutako punk-rock kantutzarra. *Mak* da pieza barruko, sentikorra,



ALOSIA

PERLATA

AUTOEKOIZPENA, 2024

in crescendo doana eta Erriberako usainaz mozorrotzen dena. *Kintsugi*-k alde-ratzen ditu rock indartsua, amorratioa eta tempo erdiak. *Gelditzekotan*-en punk-rock jostari eta itsaskorrek harrapatuko zaitu. *Mi paz* da beste punk-rock trallazo bat, Dead Girls-en tankera hartzen duena. *Esencia*-k badu Iguana basatienetik, erdi rapeatutik eta Vomito-ren iluntasunetik. *Miselio* da bestelako erritmo eta tempo desberdinen entsalada. *Si me voy no me voy* SLFtik gaur egungo punk-rockera bidea egiten duen pieza itsaskor eta indartsua. Eta, azkenik, *Araoa*: tribaletik, Eneritz Furyatik eta noisetik edaten duen sorginkeria sarkorra, taldeak beste eremu batzuk sakontzeko atek zabal-tzen dituen. ●

Brangelina: mende laurden honen espiritua

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

XXI. mendearen lehen laurdeneko bikoterik sexyena izan zen, XXI. mendearen lehen laurdeneko haustura sentimental zalapartatsu, kaotiko eta luzeena bihurtu aurretik. XXI. mendearen lehen laurdena metafora batean konprimitu daiteke: Brad Pitten eta Angelina Jolieren arteko harremana. Guapoaren guapoz aurpegian mina sentitu behar duten aktoreen arteko enegarren rolloa izan zitekeen. Hori baino gehiago izan da Brangelina: garai historiko baten espiritua. Azeleragailua topera zapalduta zihorean errebueltatik atera zen garai bat. Geroztik oinazganboa *non-stop* batean bizi izan den historiaren zati bat.

Aber, goazen puntuz puntu: *Mr. and Mrs. Smith* errodatzen ari zirenean jolitu zen Pitt –edo alderantziz; baina ez saiatu hitz jokoa alderantziz egiten, ze...-. Harira: pelikula ikusi ez duenarentzat, bi soldatapeko mertzenarioren paperak jokatu zituzten aktoreek komedia erromantiko horretan, zeinaren eszenarik ezagunenengan, elkar garbitzen saiatzen ziren, hasieran tiroka, gero biolentzia domestikoan ohikoagoak diren teknikak erabiliz –muturrekoak, ostikoak, labanak, altzariak–, klimaxera iritsi arte, non konturatzen diren ezin diotela batak besteari buruan bala bat sartu; eta beraz, elkar sobatzen hasten diren pasioz beterik. Harreman toxiko menperatzaile bat, berez, eszena horren errepikapen etengabea laburbildu dezakezu. Orain, “personala politikoa da” eta abar, kontzienteko gara

horretaz; 2005ean? Ez dut uste. Eta barre egiten genuen.

Baina itzul gaitezen aktoreen benetakiko bizitzara: elkarrengana arrimatu ziren garai beretsuan adoptatu zuen Joliek bere bigarren haurra Etiopian –Kanbodian jaiotako beste bat zeukan lehenagotik–, handik urtebetera jaiotzen bikotearen lehen umea Namibian, hurrengo urtean Vietnamgo beste haur bat adoptatu zuten eta ondorengoan jaiotzen bikotearen azken bi oinordekoak, oraingoan Frantzian. Askazi interkontinental horrek zerbait esaten digu mende hasieran bere buruaz ironiarik gabe “munduko hiritar” gisa hitz egiten zuen jendeaz. 2007-2008ko krisiaren aurretik nahiko hedatuta zegoen –galtzetan dirua zeukan jendearen artean, noski–, planeta hau eta, konkretuki, planetaren alderik pobretuenak, esperientziak arrantzatze-ko zeudela. Despolitizatutako ospakizun multi-kulti etengabea. Macacoren *Moving* kanta. Brrrr. Hozkia ematen dit oraindik.


Gero, Brangelinak, kapitalismo hippy-

piji hark bezala, eztanda egin zuen. Bueno, hemen diferentzia txikiren bat badago, bikotearen amaiera markatzen duen gertakaria bien jet pribatuan jazo baitzen, ez ohikoagoa den eszenatokian, alegia, Landetako kanpinean. Baina gainontzean, oso tipikoa: alkoholetan pasa-pasa egindako senarrak haurretako bati lepoa bihurritzen dio, beste bati jo, beste zenbait kontu; eta emazteak dio: honaino iritsi gara. Dollarretan forratutako famatuak izan arren, patroia tristeki ezaguna da.

Orduz geroztik, bi urte iraun zuen matrimonioa eteteko, zortzi urteko kalbario legalean murgilduta egon dira, kasik atzo goizera arte –Greziako zorraren negoziazioak gogoratzen? Edo Brexitarenak? Energia bera da–. Eta begiratzen hasten zarenean kontua zergatik luzatu, korapilatu eta ataskatu den hainbeste, hortxe agertzen zaizu 25 urte hauetako beste aldaketa garrantzitsuenetako bat: burujabetzaren itzulera, inporta duen asuntu bezala. Nork erabakitzen duen zer. Norenak diren haurrak. Eta, batez ere, norena

den Brangelinak, dena pikutara joan aurretik, Proventzan erosi zuen Miraval gaztelua, inguruko mahastiak eta han ekoiztutako ardoak ematen dituen irabaziak. Materialismoa ere bueltan baita: nork kontrolatzen dituen ekoizpen bitartekoak.

Enfin, gauza hauek guztiak kontuan izanda, akaso XXI. mendeko bigarren laurdena jakintza-esparru berri bat inauguratuz hasi beharko genuke: Celebrityen Ikasketa Kritikoak. Ez begiratu horrela, erromeskeria handiagoak guri-guri pasatzen dira egunero. ●



2025 Ilargia eta landareak

URTEKO LANEN AGENDA

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga



Prezioa **15€**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik
gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Lantokirako erosa eta atsegina



Ikastetxerako material hezitzailea



Baratzean eta orokorrean landareekin egitekoak ilargiaren arabera



Sasoiko eta bertako erosketa antolatzeko

Pinu zurezko eskola-altzariak



ASTIGARRAGA *kit line*



Haurrentzat diseinatuak.

-%100 pinu-zur trinkoarekin ekoiztutako eskola-altzariak, modu jasangarrian kudeatutako egurrekin eginak (PEFC ziurtagiriduna).

-Altzari iraunkorrak eta ekologikoak (Ecolabel ziurtagiridunak).

-Berritzaileak, ergonomikoak, erresistenteak, goxoak, sortzaileak eta abeikorak, ikasleen beharretara egokituak.

-Punta puntako I+G zentro teknologikoetan azterketa zorrotzak gainditu dituzten eskola-altzariak, seguruak, funtzionalak eta kalitatezkoak.



ASTIGARRAGA KIT LINE S.L.
Olalde area,3
20730 Azpeitia
Gipuzkoa

HARREMANETARAKO:
djuniet@astikitline.es
Tel.: +34 696 530 071
www.astideco.com/eu